

EUSKADIKO INGURUMEN PROFILA 2013

EAEko INGURUMEN
ESPARRU PROGRAMA
PROGRAMA MARCO
AMBIENTAL DE LA CAPV

2020



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

©Ihobe S.A., 2014ko otsaila



Argitaratzailea

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila -Eusko Jaurlaritza
Urkixo zumarkalea 36, 6. solairua - 48011 Bilbo
www.ihobe.net - www.ingurumena.net
Tel.: 900 15 08 64

Edukia

Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta bere mendeko Ihobe ingurumen jarduketarako sozietatearen lantalde teknikoak osatu du liburu hau.



Liburu honen edukiak, edizio honetan, ondoko lizentziaren babespean argitaratu dira: Errekonozimendua - Ez komertziala - Eratorritako obrarik gabe 3.0 Unported, Creative Commons (informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES).

Lehen orrialdeko Argazkia: CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/Mikel Arrazola



EAEko ingurumen-egoeraren urteko ebaluazioari buruzko informazioa ematen duten parametro nagusien komunikazio-txostenak ibilbide luzea egin du, 2002an hasi zenetik.

2013ko edizio honetan, ingurumen-informazioa urtero argitaratzea bultzatu zuen oinarri kontzeptualera itzuli nahi dugu: EAEko ingurumen-egoeraren parametro adierazgarrienen eboluzioa ikuspegi global batetik aztertzea.

2013ko Ingurumen Profilean jasotzen diren datu globalek berresten dute ingurumen-bektore nagusiek hobera egiteko joera orokorra dutela. Nolanahi ere, eztabaidaezina da une honetan jasaten ari garen krisi ekonomikoak datuetan duen eragina, eta ezin ditugu inola

ere lasaitu unera arte ingurumen-egoera alderdi guztietan hobetzeko egindako ahaleginak. Ingurumen Profil honek eskaintzen digun argazkia honela laburbil daiteke:

- Berotegi-efektuko gasen isurpenari, atmosferarako isurpenei, material-kontsumoari eta hondakin-sorkuntzari buruzko datuek desporekatzeko eta hobera egiteko joera orokorra ageri dute, herritarren eta EAEko industria-ehunaren ingurumen-jardunbidean.
- Airearen kalitatea, ur-masen egoera eta lurzoru poluituen leheneratzea globalki hobetzeko joera mantentzen da.
- Azken urteetan aurrerapen garrantzitsuak egin dira Kontserbazio Zona Bereziak izendatzen, nahiz eta habitaten kontserbazio-egoera oraindik irregularra den.

EAEko 2013ko Ingurumen Profila Ingurumenaren 2011-2014 III. Esparru Programa amaitzen ari denean gauzatzen da. Horregatik, ingurumenaren esparru-programazioaren hurrengo aldian ezarriko den ingurumen-politikaren lehentasunak definitzeko erabiliko du dokumentu hau Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak.

2013ko Ingurumen Profila prestatzeko prozesuan, gainera, etorkizun hurbilean halako txostenek balio erantsi handiagoa izatea ahalbidetuko duten zenbait elementu eta proposamen hauteman ditugu. Profilaren hurrengo edizioek, zalantzarik gabe, une honetan gogoeta-prozesuan dauden hobekuntza-aukerak barne hartuko dituzte.

Ana Oregi
Ingurumen eta Lurralde Politika sailburua
Eusko Jaurlaritza

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. EAE-KO 2013KO INGURUMEN-PROFILAREN AURKEZPENA	1
2. 2013KO INGURUMEN-ADIERAZLEAK	3
2.1 KLIMA ALDAKETA	3
2.1.1 BEG isurpenak guztira	5
2.1.2 BEGen isurpenak sektoreka	7
2.1.3 BEG isurpenen totala BPGd-arekiko	9
2.1.4 BEG-isurpenak per capita	10
2.2 AIREA	13
2.2.1 Airearen kalitatearen indizea (AKI)	14
2.2.2 Atmosfera-poluigarrien isurpenak eta isurpenen intentsitatea	17
2.2.3	19
2.2.4 Aireko partikula- eta ozono-poluzioaren eraginpean dagoen hiri-populazioa	20
2.3 URA	22
2.3.1 Lurgaineko ur-masen egoera/potentzial ekologikoa eta egoera fisiko-kimikoa	24
2.3.2 Lurpeko ur-masen egoera kimikoa	29
2.3.3 Bainatzeko uraren kalitatea	30
2.4 LURZORUA	33
2.4.1 Hirigintza-ekintzak eragindako lurzoru-artifizializazioa	35
2.4.2 Ikertu eta leheneratu diren poluituta egon zitezkeen lurzoruak	36
2.5 BIODIBERTSITATEA-INGURUNE NATURALA	39
2.5.1 Habitaten kontserbazio-egoera orokorra	40
2.5.2 Espezieen kontserbazio-egoera orokorra	42
2.5.3 Hegazti ugaltzaile arrunten segimendua	44
2.5.4 Eremu babestuen egoera (Natura 2000 Sarea)	46
2.6 BALIABIDE MATERIALAK	47
2.6.1 Materialen bertako kontsumoa	49
2.6.2 Produktibitate materiala	51
2.7 HONDAKINAK	53
2.7.1 Hiri-hondakinen sorkuntza eta kudeaketa	56
2.7.2 Hondakin arriskutsuen sorkuntza, kudeaketa eta intentsitatea	59
2.7.3 Hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza, kudeaketa eta intentsitatea	62

ERANSKINAK

1. eranskina: EAEko herritarren pertzepzioaren adierazleak
2. eranskina: ingurumen-kudeaketaren adierazleak
3. eranskina: EAEko eta Europako ingurumen-adierazleen konparazioaren laburpena

1. EAE-KO 2013KO INGURUMEN-PROFILAREN AURKEZPENA

Duela hamar urte baino gehiagotik, Eusko Jaurlaritzak urtero argitaratzen du EAEko ingurumen-adierazle nagusien txosten globala. 2009. urtetik aurrera, urteko informazio-txosten horri EAEko Ingurumen Profil deritzo.

Urte horietan zehar, ingurumen-informazioa jasotzen duen urteko txostenaren helmena eta edukiak egokitu egin dira, informazio-eskuragarritasunari loturiko egoera zehatzak eta EAEko Ingurumeneko Esparru Programetan ezarritako lehentasunak kontuan hartuta. Laburbilduz, 2002-2006 aldian, urteko txostenak egoerako ingurumen-adierazleetan oinarritzen ziren. 2007. eta 2010. urteen bitartean, egoera-adierazleei eta Ingurumenaren II. Esparru Programaren aurreratze-mailari loturiko adierazleak barne hartzen zituen txosten integratu bat ezarri zen, Ingurumenaren II. Esparru Programaren helburuak adierazle horiekin lerrotatuta edo erlazionatuta zeuden neurrian. 2011. urtetik aurrera, ingurumen-egoerari buruzko informazio-txostena estatistikako eragiketa-multzo baten bidez osatu zen, eta Ingurumen Profila, berriz, gehiago zentratu zen Ingurumenaren III. Esparru Programako konpromisoetan egindako aurrerapen-mailan.

EAEko 2013ko Ingurumen Profilaren esparrua eta haren edukiak elementu hauek baldintzatzen dituzte:

- Ingurumen-informazioa biltzeari, aztertzeari eta argitaratzeari dagokionez haren esparru tematikoetan (klima-aldaketa, airea, ura, lurzorua, hondakinak, biodibertsitatea) gertatu diren aurrerapen garrantzitsuak. Egun, EAEn ingurumen-informazio asko eta askotarikoa dago eskuragarri argitaratu diren lanen bidez (inbentarioak, gidak, eskuliburuak, monografikoak, planak eta abar).
- Ingurumenaren esparruari loturiko eragiketa estatistikoen multzo irmo eta egonkorra egotea eta argitaratzea, horien bidez Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak EAEko ingurumen-bektore nagusien informazio eguneratua eskaintzen baitu. Informazio hori nahi duenarentzat dago eskuragarri Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean. <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net>
- EAEko Ingurumenaren 2011-2014 Esparru Programan (III. IEP) ezarritako planifikazio-zikloaren barruko azken ezartze-etapan gaude. III. IEPen ezaugarri nagusia izan zen kudeaketa-adierazle deritzenak hein handi batean txertatu zirela aginte-panel integralean.
- Jadanik hasiak dira EAEko Ingurumenaren IV. Esparru Programa taxutzeko prestakuntza-lanak, non 2015az ondorengo lehentasunak eta helburu estrategikoak zehaztuko baitira. Ildo horretan, EAEko 2013ko Ingurumen Profila ingurumen-alorrean landu beharreko lehentasun-esparruak ezartzeko kontuan hartuko den elementuetako bat izango da.

Ingurune horretan, EAEko Ingurumen Profilaren 2013ko txostenak albait argien, zehatzen eta globalen azaldu nahi du EAEko ingurumen-egoeraren urteko eboluzioa, gai-esparru bakoitzari loturiko adierazle esanguratsuen bidez. Hartara, Profilak gai hauei buruzko informazioa jasotzen du: klima-aldaketa, airea, ura, lurzorua, biodibertsitatea, material-fluxua eta hondakinak.

Esparru bakoitzeko adierazleak honako elementu hauetan oinarrituta aukeratu dira:

1. Europar eskuragarri dagoen informazio nagusiaren analisia ingurumen-adierazle nagusiei dagokienez, Ingurumenaren Europako Agentziaren bidez (<http://www.eea.europa.eu/data-and-maps/indicators>) eta Eurostat Europako Batzordeko estatistika-bulegoaren bidez (<http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/environment/data/database>).
2. EAEEn eskuragarri dagoen ingurumen-estatistika ofizialaren analisia, Euskal Estatistika Erakundearen bidez (<http://www.eustat.es>; EAEko 2012ko txosten sozioekonomikoa) eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Estatistika Organoaren bidez (<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-estamapt/es>).
3. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko bertako jarduera-esparru bakoitzari loturiko arduradun eta teknikarien irizpide aditua.

Gai-esparruka aukeratutako adierazle bakoitzerako, haren egoeraren edo eboluzioaren informazio adierazgarria jasotzen da Profilean (grafiko, taula edo testu gisa), orobat oinarritzko metodologia-erreferentziak, datuen analitiko atera daitezkeen funtsezko mezuak eta adierazlearen definizioa osatzen duen informazio gehigarria (adierazle-mota, Europako Ingurumen Agentziaren DPSIR eskemaren arabera¹; adierazleari buruzko xehetasun teknikoak; informazio estatistikoa mota; informazio gehiago non aurkitu daitezkeen).

Azkenik, osagarri gisa, EAEko 2013 Ingurumen Profilak honako informazio-eranskin hauek ditu:

1. eranskina.- EAEko herritarrek ingurumenari buruz duten pertzepzioari loturiko mezuen laburpena, 2013ko maiatzean argitaratutako Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen Ingurumenari eta Energiari buruzko txostenetik hartuak.
2. eranskina.- ingurumenarekin erlazioa duten eragileen erantzunkidetasun-maila adierazten duten kudeaketa-adierazleen laburpena.
3. eranskina: EAEko datuen eta Europar argitaratutako datuen konparazio zuzena egitea ahalbidetzen duten adierazleekin harremana duten datu eguneratuen laburpena.

¹ Europako Ingurumen Agentziaren DPSIR eskemak gizartearen eta ingurumenaren arteko interakzioak aurkezten ditu, bost erlazio-esparrutan: Indar motorrak (**D**Driving Forces), Presioak (**P**Pressures), Egoera (**S**tate), Inpaktua (**I**mpact) eta Erantzunak (**R**esponses). Eredu kausal horrek aztertzen du ingurumen-sistema nola zehazten duen INDAR MOTORREN emaitzak, horiek ingurumen-sistemaren gainean presioa egiten baitute. Ingurumen-sistemak PRESIO hori zati batean edo guztiz asimilatzen du, bere EGOERA aldatuz. Aldaketa hori INPAKTU negatibotzat hartzen da ingurumen-kalitateak okerrera egitea eragiten duenean. Gizarteak inpaktu horien aurrean ERANTZUN egiten du, sistema orekatzen saiatzeko.

Ingurumen-adierazleak erlazio-esparru horiei buruzko informazioa eskaintzen duten ala ez aintzat hartuta sailka daitezke.

2. 2013KO INGURUMEN-ADIERAZLEAK

2.1 KLIMA ALDAKETA

Mezu gakoan laburpena

Kyotoko protokoloaren lehen betetze-aldia amaitu ostean, EAEko berotegi-efektuko gasen isurpen totala Klima Aldaketaren aurkako 2008-2012 Euskal Planaren muga objektiboa baino nabarmen beherago dago. Garraio- eta zerbitzu-sektoreek izan dute gorakada handiena berotegi-efektuko gasen sorkuntzan. BPGarekiko BEGen isurpenei buruzko datuek desparekatzeko eta hobekuntzarako joerak ageri dituzte EAEko herritarren ingurumen-jardunbidean.

Klima-aldaketa EAEko politika publikoetako (garapen jasangarriko politikak, ingurumen-politika, klima-aldaketari buruzko politikak, energia-politika eta gainerako sektore- eta lurralde-politikak) agendetan ageri da dagoeneko.

Autonomia-erkidegoan Klima Aldaketaren ondorioak leuntzeko ikuspegiak jasotzen dituzten politika publiko nagusiak

MOTA	DOKUMENTU ESTRATEGIKOA
<i>Ingurumen-politika</i>	Ingurumenaren Hirugarren Esparru Programa (2010-2014).
<i>Klima-aldaketaren aurkako politika</i>	Klima Aldaketaren aurkako Euskal Plana (2008-2012)
<i>Sektore-politikak</i>	3E2020 Energia Estrategia, Garraio Jasangarrirako Plan Zuzentzailea eta abar.

Politika horiek prestatzeko eta horien segimendua eta ebaluazioa egiteko berotegi-efektuko gasen isurpenen eboluzioari buruzko informazioa behar da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak berotegi-efektuko gasen isurpenen segimendua egiten du, 2000. urteaz geroztik argitaratzen den urtero BEGen inbentarioa eginez.

Ingurumen Profil honek Berotegi Efektuko Gasen EAEko 2012ko Inbentarioko lau adierazle sintetikori buruzko informazioa aurkezten du. Adierazle horiek esanguratsuenak direla jotzen da, klima-aldaketa arintzeko alderdietan eragiten duten politika publikoen lorpenak oro har ezagutzeko eta ebaluatzeko. Honako alderdi hauei buruzko informazioa ematen dute:

Klima Aldaketaren adierazle-sorta

ADIERAZLE SINTETIKOAK	POLITIKA PUBLIKOEN GARRANTZIA
<i>BEGen isurpenen sorkuntza totala</i>	EAEk Berotegi Efektuko Gasen isurpen globaletan egiten duen ekarpenaren eboluzioa azaltzen du
<i>BEGen sorkuntza sektoreka</i>	EAEEn BEGak sortzen dituzten sektoreek isurpen globaletara egiten dituzten banakako ekarpenen eboluzioa aipatzen du.
<i>BEG isurpen totalen intentsitatea BPGd-arekiko</i>	Euskal ekonomiaren desparekatzearen eta ekoeraginkortasunaren eboluzioa azaltzen du, izandako BEG-isurpenen bolumenaren ikuspegitik (BPGd unitateko sortutako BEGak).
<i>BEG isurpenen per capita sorkuntza</i>	Herritarren ingurumen-portaera eta isurpen-adierazleak erlazionatzen ditu, Isurpen totalen eta isurpen banatuen (isurpen-merkataritzaren arauetan araututa ez dauden sektoreenak) <i>per capita</i> datuak eskaintzen dira. Hain zuzen ere, <i>per capita</i> isurpen banatuak dira esanguratsuenak guri dagokigunez; izan ere, lotura handiagoa dute BEGen sorkuntza intentsiboko zenbait sektore (nagusiki garraioa) erabiltzeari buruz banakoek egindako aukerekin.


Gehiago jakiteko

<i>Honekin lotutako beste adierazle batzuk</i>	<p>Ingurumen Profil honetarako aukeratu diren klima-aldaketaren adierazle laburrak ez ezik, beste adierazle batzuei buruzko informazio xehea ere eskaintzen du Berotegi Efektuko Gasen EAEko Inbentarioak , hala nola berotegi-efektuko gas motako banako inbentarioei buruzko <i>per capita</i> indizeak, datuak eta abar.</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean daude eskuragarri Inbentarioaren edizio guztiak.: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net</p>
--	---

2.1.1 BEG isurpenak guztira

Adierazlea

Berotegi Efektuko Gasen isurpenen totalaren eboluzio-indizea



Kalkuluak

Kalkulua urteko isurpenen datuetan oinarrituta egiten da, CO₂-tona baliokidetan adierazita, elektrizitate-inportazioei loturiko isurpenak barne.

Unitateak

Adierazle hau indize bat da. 100 indizea Kyotoko Protokoloaren oinarri-urteko isurpenei dagokie: 1990 CO₂, CH₄ eta N₂O-aren kasuan; 1995 gas fluoratuen kasuan (HFC+PFC+SF₆).

Iturria

Berotegi Efektuko Gas Isurien 2012ko Euskal Autonomia Erkidegoko Inbentarioa

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

Euskal Autonomia Erkidegoko berotegi-efektuko gasen isurien totala 20,8 milioi CO₂ tona baliokidekoa izan zen 2012an; hau da, 2011ko isurien aldean % 2 gehiago, eta oinarri-urtearen aldean, berriz, % 1 gutxiago.

Azken urteko gorakada hori nagusiki elektrizitate-sorkuntzak eta garraioaren sektoreak eragin dute.

EAEn indize honetarako definitu diren helburu kuantitatiboei dagokienez, ikusten da 2012an balioa 15 puntu baxuagoa dela, Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planak 2012rako zehaztu zuen helburua baino.

Informazio gehiago


<i>Mota (DPSIR)</i>	Ingurumen-presioaren adierazlea (isurpenak)
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 1990/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jaso)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webguneko Klima Aldaketari buruzko atala: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-12592/eu/

2.1.2 BEGen isurpenak sektoreka


Adierazleak

- BEGen 2012ko isurpenak sektoreka
- BEG isurpenen aldakuntza sektoreka, erreferentziako urtetik eta 2012. urtera bitartean

BEG isurpenak JESNko sektoreen arabera, sektore bakoitzari elektrizitate-kontsumoak eta beroak eragindako isurpenak esleituta (2012. urtea)



Oinarri urtetik 2012ra bitartean BEG-isurpenetan izandako aldakuntza, sektoreka



<i>Kalkuluak</i>	Indizeen nahiz ehunekoen kalkulua sektore bakoitzaren urteko isurpenen datuetan oinarrituta egiten da, CO ₂ tona baliokidetan adierazita, elektrizitate-inportazioei loturiko isurpenak barne. Energiaren sektoreak barne-eskaera asebetetzeko barneko eta kanpoko elektrizitate ekoizpenetik eratorritako isurketak biltzen ditu, kokeari, finketari, zentral elektrikoaren barne kontsumoari eta garraioan galdutakoari dagozkienak barne.
<i>Unitateak</i>	Ehunekoak pisutan adierazten dira, inbentarioan jasotako kantitate totalekiko, CO ₂ tona baliokidetan adierazita. Oinarri-urtetzat 1990 hartu da CO ₂ , CH ₄ eta N ₂ O-aren kasuan eta 1995 gas fluoratuen kasuan (HFC+PFC+SF ₆).
<i>Iturria</i>	Berotegi Efektuko Gas Isurien 2012ko Euskal Autonomia Erkidegoko Inbentarioa Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

EAEen berotegi-efektuko gas gehien sortzen dituzten sektoreak industria-sektorea (% 36), garraioa (% 26) eta energia-transformazioa (% 13) dira. Horiek BEGen isurpenen totalaren % 75 eragiten dute.

Erreferentziako urteaz geroztik sektorekako isurpenen eboluzioa aztertuz gero, ikus daiteke industriak % 43 murriztu duela eta garraio-sektoreak, berriz, ia bikoiztu egin duela (+% 94) orduko balioa. Dena den, aipatu aldirian gorakada handiena izan duen sektorea zerbitzuena izan da, % 101 handitu baita.


Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Indar motorraren (sektoreak) eta ingurumen-presioaren (isurpenak) adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 1990/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webguneko Klima Aldaketari buruzko atala: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-12592/eu/

2.1.3 BEG isurpenen totala BPGd-arekiko

Adierazlea

BEGen isurien totalaren bilakaeraren indizea, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGd-arekiko

*Unitateak*

BEGen sorkuntza-intentsitatearen eboluzio-indizea (CO₂ tona baliokideak / BPGd-eko milioi euro), erreferentziako urterako. Kalkulurako erabili diren BPGd (Barne Produktu Gordina) datuak Erosteke Ahalmenaren Parekotasun (EAP) gisa adierazita daude

Iturria

Berotegi Eftuktuko Gas Isurien 2012ko Euskal Autonomia Erkidegoko Inbentarioa
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezua



EAEko ekonomiak azken urteetan desparekatzeko eta eraginkortasuna globalki hobetzeko joera jarraitu eta eutsia agertu du, Berotegi Eftuktuko Gasen isurpenak sortzeari dagokionez. Hala, 2012an, erreferentziako urtean isurtzen zuena baino % 42 gutxiago isuri du aberastasun ekonomikoko kopuru bera ekoizteko.

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Egoeraren adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2000/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webguneko Klima Aldaketari buruzko atala: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-12592/eu/

2.1.4 BEG-isurpenak per capita

<i>Zer dira berotegi efektuko gasen isurketa banatuak?</i>	Sektore lausoen isurpenak dira, isurpen-merkataritzako arauk arautu gabeak. Funtsean, garraio-sektoreak, bizitegi-sektoreak eta zerbitzuen sektoreak eragiten dituzte isuri horiek, baina hondakinen sektorea eta aipatu arauk eragiten ez dieten industria- eta energia-instalazioak ere hartzen ditu barne.
<i>Adierazleak</i>	BEG isurpenen totala per capita BEG isurpen banatuak per capita

BEG isurpenen totala per capita (tonatan)**BEG isurpen banatuak per capita (tonatan)**

<i>Unitateak</i>	CO ₂ tona baliokide biztanleko, kontuan hartzen diren sektoreek sortuak (guztiak <i>versus</i> lausoak).
<i>Iturria</i>	Berotegi Efectuko Gas Isurien 2012ko Euskal Autonomia Erkidegoko Inbentarioa Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

Per capita isurpenak guztira. 2002. urteaz geroztik, CO₂ isurpenak biztanleko 3.000 tona CO₂ inguru murriztu dira, nahiz eta azken urtean zertxobait igo diren. EAEko isurketak 2011ko EB-15eko batezbestekoak baino handixeagoak dira.

Per capita isurpen banatuak. EAEn biztanleko isurpen banatuek (oro har eta fluktuazioak gorabehera) beheranzko joera agertzen dute. Horrek adierazten du herritarren ingurumen-portaera hobetu egin dela sektore lausoekiko oro har eta, batez ere, garraioa erabiltzeari dagokionez (garraioa da EAEn isurpen banatuen iturri nagusia).

Bestalde, nabarmentzekoa da EAEn biztanleko isurpen banatuen batezbestekoa EB-15aren batezbestekoa baino txikiagoa dela. Zehazki, EAEn 2011ko datua Europako batezbestekoa baino % 14 txikiagoa da.

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Presio-adierazlea
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2005/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2011/12/31 eta 2012, kasuaren arabera.
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	BEGen Inbentarioaren Estatistika
<i>Gehiago jakiteko</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webguneko Klima Aldaketari buruzko atala: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-12592/eu/

2.2 AIREA

Mezu gakoan laburpena

2012an airearen kalitatea oro har hobetzeko joerak berean iraun du EAEn, eta egunen % 98,6tan airearen kalitatea ona eta onargarria izan da. Atmosfera-poluigarrien isurpenak beheranzko joera izaten jarraitzen du, eraginkortasuna hobetu delako eta jarduera ekonomikoak ere behera egin duelako. NO_x murriztea etorkizuneko erronka izango da berriz ere, ez baita murrizketa nabarmenik hauteman erreferentziako urtearekiko.

Atmosferaren poluzioa herritarrek nahiz administrazioak historikoki lehen eta argien hauteman duten ingurumen-arazoetako bat da, pertsonen osasunean eta ongizatean, zein landaredian, dituen ondorio larriengatik.

Horregatik, instituzioek zenbait hamarkada daramate airearen kalitatearen arazoei erantzuten, batez ere, arauen bidez (beraz, nahitaez bete beharrekoak), atmosfera-poluigarrien isurpenak mugatzeko isurpen-puntuetan eta giro-airean baimendutako poluigarri-mailak murrizteko.

Ingurumen Profil honetarako bi jardunbide horien ezaugarri adierazgarriak aukeratu dira adierazle gisa: airearen kalitatearen indizea eta atmosferaren poluigarri nagusien isurpen-indizeak, hain zuzen. Lehenak azaltzen du zein heinetaraino ari den poluigarriz garbitzen arnasten dugun airea; eta bigarrenak azaltzen du zein neurritan garen gutxiago isurtzeko eta, ondorioz, gutxiago poluitzeko gai. Bi adierazle horiek ibilbide luzea dute EAEn, duela zenbait hamarkadatik erabiltzen direlako eta datu historiko ugari eta metodologia sendotu bat daudelako.

Bi adierazle historiko horiek berriki sortutako hirugarren adierazle batekin osatzen dira. Hirugarren horrek giza osasunaren gaineko inpaktua azaltzen du, partikulen eta ozonoaren (EAEn eta Europar Batasunean poluigarri lehenetsiak dira horiek) eraginpean dagoen hiri-populazioaren gaineko datuak eskainiz.

Airearen kalitate-adierazleen sorta hautatua

ADIERAZLE SINTETIKOAK	POLITIKA PUBLIKOEN GARRANTZIA
<i>Airearen kalitatearen indizea</i>	Airearen kalitatearen eboluzio orokorra azaltzen du, hau da, zer puntutaraino lortzen den airea poluigarriz garbitzea
<i>Atmosferaren poluigarri lehenetsien isurpenak eta isurpenen intentsitatea</i>	Aireratutako poluigarri-kantitatearen eboluzioa eta, hortaz, zenbateko murrizketa lortu den azaltzen du. Isurpenen intentsitatearen eboluzioari buruzko informazioa ere eskaintzen du (isurpenak/BPGd), isurpen-sorkuntzaren eta jarduera ekonomikoaren arteko desparekatze-alderdiak aipatzen dituena.
<i>Partikulen eta ozonoaren eraginpean dagoen hiri-populazioa</i>	Honek azaltzen du zein heinetaraino dagoen populazioa atmosferaren poluigarri lehenetsien eraginpean eta, hortaz, osasunaren gainean gerta litekeen inpaktuaren neurri bat eskaintzen du, zeharka.


Gehiago jakiteko

<i>Honekin lotutako beste adierazle batzuk</i>	<p>Ingurumen Profil honetarako aukeratutako adierazle sintetikoek gainera, argitalpen ugari eskaintzen dute adierazle horiei eta beste batzuei buruzko informazio xehea. Hauek dira aipagarrienak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Partikulen, gas azidogarrrien eta ozono troposferikoaren aitzindarien EAEko isurpenen inbentarioa (2005-2012). • Airearen Kalitatearen Kontrol eta Segimendu Sarearen datuen urteko txostenak. • Airearen kalitatearen EAEko bilakaera-txostena (2001-2011)
--	--

2.2.1 Airearen kalitatearen indizea (AKI)

<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Airearen kalitatearen indizea. Urteko eboluzioa kategoriara, 2005-2012 • Jasangarritasunaren adierazlea. Aire-kalitate oneko eta onargarriko egunen kopurua • Poluigarrien muga-kontzentrazioak gainditzen dituzten estazioen kopurua
--------------------	---

Airearen kalitatearen indizea (AKI)



Airearen kalitatearen jasangarritasun-adierazlearen eboluzioa

Aire-kalitate oneko eta onargarriko egunen ehunekoa	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
	% 94,6	% 93,0	% 93,8	% 96,8	% 97,4	% 99,1	% 97,8	% 98,6

Muga-kontzentrazioa gainditu dela erregistratzen duten Zaintza Sareko estazio kopuruaren eboluzioa

Legezko kontzentrazioak gainditu izan duten estazioen kopurua	Poluigarria	2009	2010	2011	2012
Legezko muga-kontzentrazioetik gorako balioak legean jasota dauden aldietan baino sarriago erregistratu izan dituzten Zaintza Sareko estazioen kopurua	NO ₂	0	0	0	0
	O ₃	2	3	2	0
	PM ₁₀	3	1	2	1
Legezko muga-kontzentrazioetik gorako balioak legean jasota dauden aldietan baino bakanago erregistratu izan dituzten Zaintza Sareko estazioen kopurua	NO ₂	3	1	4	0
	O ₃	27	36	34	24
	PM ₁₀	45	27	37	36

Kalkuluak

Kalitate-indizea urte natural baterako kalkulatzen den adierazle sintetikoa da, airearen kalitatearen egoeraren eguneroko datuak (EAEko Kontrol eta Zaintza Sareko estazioetan neurtuak) erreferentzia gisa hartzen dituen. Indizea kalkulatzeko kontuan hartzen diren atmosferaren poluigarriak SO₂, NO_x, CO, PM₁₀ eta O₃ dira. Adierazlea airearen kalitateari dagozkion 6 tartetan banatzen da: ona, onargaria, erdibidekoa, txarra, oso txarra eta arriskutsua.

Informazio osagarri gisa, Jasangarritasun Adierazlearen datua eskaintzen da, honela kalkulatzen dena: («Ona» kalifikazioko egunak + «Onargaria» kalifikazioko egunak)/urteko egunak guztira.

Legezko kontzentrazioa gainditu dela erregistratzen duten Zaintza Sareko estazioen kopuruaren datua ere eskaintzen da:

- NO₂-ren kasuan, giza osasuna babesteko 200 µg/m³-ko orduko muga-balioa uneren batean eta, legeak adierazi bezala, urtean 18 alditan baino gehiagotan, gainditzen duten estazioen kopurua.
- O₃-ren kasuan, giza osasuna babesteko balio objektiboa (120 µg/m³ gehienez ere eguneko zortzi orduko batezbestekotan) uneren batean eta urte zibil bakoitzeko 25 egunetan baino gehiagotan 3 urteko aldi, legeak adierazi bezala, gainditzen duten estazioen kopurua.
- PM₁₀-aren kasuan, giza osasuna babesteko 50 µg/m³-ko eguneko muga-balioa uneren batean eta, legeak adierazi bezala, urte zibilean 35 alditan baino gehiagotan, gainditzen den estazioen kopurua.

Unitateak

Kalitate-indizearen eta jasangarritasun-adierazlearen kasuan, egunen %, airearen kalitatearen arabera, urte naturalean neurketa egin den egun guztiekiko.

Funtsezko mezuak

2012an, aire-kalitate oneko eta onargarriko egunen ehunekoa guztikoaren % 98,6koa izan zen EAEn. Datu horrek % 0,8an hobetzen du aurreko urteko adierazlea, eta 2006an airearen kalitatea oro har hobetzeko hasi zen joerari eusten zaio.

Bestalde, airearen kalitatearen indizea sortzen duten poluigarrien gaineko datuen eboluzioari erreparatuta, honako emaitza hauek lortu dira:

- Industriak airearen kalitatean duen eragina nabarmen murriztu da, zirkulazioak eragindako inpaktua ez bezala, azken hori mantendu egin baita.
- Nolanahi ere, azken urteotan neurtutako balioak legeak ezarritako mugen barnean daude, gure geografiako puntu jakin batzuetan partikulen edo ozonoaren kontzentrazio altua ematen bada ere. Kasu horietan, mugak gainditzen direnean, airearen kalitatea hobetzeko planak egiten dira puntu horietan, legeak ezarritakoarekin bat.

Informazio gehiago


<i>Mota (DPSIR)</i>	Egoera-adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2005/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Atmosfera-poluigarrien indizea estatistika ofizialean jasota dago (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Aireari buruzko webgune tematikoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen direnak: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net

2.2.2 Atmosfera-poluigarrien isurpenak eta isurpenen intentsitatea


Adierazleak

- Substantzia azidogarrien (NO₂, SO_x, NH₃), ozono troposferikoaren substantzia aitzindarien-OTA (NO₂, KOLEM, CO, CH₄) eta partikulen (PM₁₀) isurpen baliokideen totalaren eboluzio-indizea. 1990-2012
- Isurpenen intentsitate-indizea (Isurpenak/BPGd). 1990-2012
- NO_x isurpenen indizea. 1990-2012

Azidogarrien, partikulen eta OTAen isurpenak



"Isurpenak/BPGd" erlazioaren eboluzioa 1990eko balioarekiko





Kalkuluak eta unitateak

1990eko oinarri-indizea=100

Substantzia azidogarrien indize agregatua kalkulatzeko, kontuan hartu da substantzia bakoitzaren efektu azidogarri baliokidea, faktore honen arabera: NO_x: 21,74; SO_x: 31,25; NH₃: 58,82

Ozono troposferikoaren substantzia aitzindarien indize agregatua kalkulatzeko, kontuan hartu da substantzia bakoitzaren efektu azidogarri baliokidea, faktore honen arabera: NO_x: 1,220; KOLEM: 1,000; CO: 0,110; CH₄: 0,014.

BPGd-aren datuak, 2000. urteko prezio konstanteetan.

Iturriak

Partikulen, gas azidogarrien eta ozono troposferikoaren aitzindarien EAEko isurpenen inbentarioa. 2000-2012

Funtsezko mezuak

Poluigarri-familia lehenetsien isurpenen eboluzioa. Atzeraldiak –eta horrek sektore ekonomiko guztietan izan duen inpaktuak– Europa mailan atmosferarako isurpenak murriztea eragin du, EAEn ere bai, beraz, batez ere energia-eskaria jaitsi delako jarduera ekonomiko txikiagoa dela eta. Zehazki, EAEn, 2012an substantzia azidogarrien isurpenak % 29 jaitsi dira 2007. urtearekiko; ozono troposferikoaren aitzindarien isurpenak % 15 jaitsi dira eta partikulek % 32ko beherakada agertu dute.

Desparekatzea (intentsitatea). Dena den, isurpenak bakandu eta urritu egin dira, halaber, ekoeraginkortasunean aurrerapenak egin direlako eta desparekatzea gertatu delako atmosfera-isurpenen eta eboluzio ekonomikoaren artean, intentsitate-adierazleak (isurpenak / BPGd) agerian uzten duen bezala. Horretan, argi ikus daiteke beheranzko joera gertatu dela 2007az ondorengo krisialdian nahiz aurreko hazkunde-aldian. Hain zuzen ere, 2012an, BPGd unitate bakoitzeko erreferentzia-urtean (1990) izandako isurpenen erdia baino gutxiago sortu dira eta, partikulen kasuan, % 60 inguruko murrizketak lortu dira.

Poluigarri lehenetsien isurpenen eboluzioa. EAEn, partikulak eta NO_x dira lehentasunez kontrolatu eta murriztu nahi diren atmosfera-poluigarriak. Partikula-isurpenen eboluzioa oso egokia izan da, eta oso murrizte nabarmenak lortu dira, aurreko paragrafoetan aipatu dugun bezala. Dena den, NO_x murrizteak etorkizuneko erronka izaten jarraitzen du, ez baita murrizte esanguratsurik erregistratu erreferentzia-urtearekiko (2012an NO_x isurpenetan % 3ko beherakada baino ez zen gertatu, 1990. urtearekiko), eta 2005. urtean behatutako murrizte, berriz, nagusiki egoera ekonomikoaren ondorioz gertatu baitzen.


Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Presio-adierazlea
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 1990/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Ingurumen-adierazleei buruzko webgunea eta Aireari buruzko webgune tematikoa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen direnak: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net

2.2.3 Aireko partikula- eta ozono-poluzioaren eraginpean dagoen hiri-populazioa

Adierazleak

- Aireko partikulek (PM₁₀) eta ozonoak (O₃) eragindako poluzioaren eraginpean dagoen hiri-populazioaren indizea, 2011.



Kalkuluak eta unitateak

Adierazle konplexuak dira, eta hiri-populazioari eragin diezaioketen partikulen (PM₁₀) eta ozonoaren (O₃), batez besteko kontzentrazio haztatuaren neurria eskaintzen dute.

- PM₁₀-en kasuan, unitatea PM₁₀(1) partikulen urteko batez besteko kontzentrazioa da, µg/m³-tan.
- Ozonoaren kasuan (O₃), unitatea eguneko kontzentrazioaren batezbesteko haztatu gisa adierazten da, µg/m³/egunetan.

Dokumentu hau errazago interpretatzeko, datuak normalizatuta adierazi dira, Europako (EB-27) batezbestekoarekiko, hots, Europako aipatu batezbestekoaren ehunekotan.

EAEko datua 2011. urtekoa da, eta Europako batezbestekoaren datua 2010ekoa da, hori baitzen dokumentu hau ixteko unean argitaratuta zegoen azkena.

Iturriak

Guk geuk egina, Eurostatek argitaratutako Europako batezbestekoen indize ofizialetatik eta EAERako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak kalkulaturako indizeetatik abiatuta.

Funtsezko mezua

EAEEn airearen partikula- eta ozono-poluzioaren eraginpean dagoen hiri-populazioa nabarmen txikiagoa da, erlatiboki, Europako hiri-populazioaren batezbestekoa baino (% 18 txikiagoa partikulen kasuan eta % 38 txikiagoa, berriz, ozonoaren kasuan).

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Inpaktu-adierazlea (giza osasunaren gaineko inpaktua)
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2011/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2011/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net

2.3 URA

Mezu gakoen laburpena

EAEko lurgaineko ur-masen egoera ekologikoak eta fisiko-kimikoak eboluzio positiboa agertzen du. Bestalde, lurpeko uraren egoera kimikoak ona eta egonkorra izaten jarraitzen du, eta ur-masen oso kopuru mugatua dago egoera kimiko txarrean. Osasunaren ikuspegitik, EAEko bainatzeko uraren kalitateak ere nabarmen joera positiboa agertu du azken urteotan.

Instituzioek ahalegin berezia egin dute uraren kalitatea hobetzen, eta ondorioz, bilakaera positiboena izan duen arloetako bat izan da.

2000/60/CE Zuzentaraua, Uraren Esparru Zuzentarau (UEZ) gisa ezaguna, abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bidez txertatu zen Espainiako antolamendu juridikoan. Zuzentarau horrek lurgaineko ur kontinentalen, trantsizio-uraren eta kostako uraren, lurpeko uraren nahiz eremu babestuetako uraren babes-esparrua ezarri zuen.

UEZ aplikatzeko tresna gakoetako bat plan hidrologikoak dira, mugape hidrografiko bakoitzerako taxutu behar direnak, eta helburu horiek lortzera zuzendutako jarduerak barne hartzen dituztenak. EAEko ur-masak ekialdeko Kantauriko, mendebaldeko Kantauriko eta Ebroko mugape hidrografikoen Plan Hidrologikoetan integratuta daude.

UEZak, halaber, ur-masen egoeraren segimendu-programak ezarri behar direla adierazten du, ikuspegi orokor, koherentea eta osoa izateko mugape bakoitzeko ur-masen egoerari dagokionez, ingurumen-helburuen betetze-maila zehazteko eta Plan Hidrologiko bakoitzaren neurri-programen eraginkortasun-maila zehazteko.

EAEEn, Eusko Jaurlaritza 1990eko hamarkadan hasi zen lurgaineko nahiz lurpeko ur-masen ebaluazio-lanak egiten. Ebaluazioaren hasierako ikuspegia gerora UEZak ezarri zuenaren antzekoa izan zen eta, ondorengo edizioetan, gaur egun arte, arauen eskakizun berrietara moldatu da, UEZarekin bat datozen ebaluazio-sistemak ezarriz eta ur-masen egoera hobeto ezagutu nahian.

Ingurumen Profil honetarako, EAEko ur-masen egoeraren ezaugarri adierazgarriak diren aukeratu dira adierazle gisa, gaur egun Uraren Euskal Agentziak kudeatzen dituen segimendu-programek emandako informazioan oinarrituak.

Batetik, lurgaineko uraren kasuan, egoera edo potentzial ekologikoaren ebaluazioa aurkezten da, gainazal-urei loturiko ur-ekosistemen egituraren eta funtzionamenduaren kalitate-adierazpen gisa, batez ere, adierazle biologikoetan oinarrituta. «Egoera ekologiko» ordez «potentzial ekologiko» terminoa erabili da, oso ur-masa eraldatu edo artifizialen kasuan.

Halaber, lurgaineko uraren kasuan, egoera fisiko-kimiko orokorrari buruzko ebaluazioa aurkezten da, egoera ekologikoari loturiko ingurumen-helburuak lortzeko baldintza abiotikoen funtsezko zati bat izaki. Adierazle horrek EAEEn hedatuen dauden eta zuzentze-neurri gehien ezarri zaizkion presio-motetako bat ebaluatzea ahalbidetzen du: hirien eta industriaren isuriak.

Lurgaineko ur-masen egoera-adierazleek eskaintzen duten informazioa modu homogeneoan egituratze aldera, identifikatutako ur-masa moten arabera sailkatzen dira: ibaiak; trantsizio-urak; kostako urak; eta aintzira eta hezeguneak.

Lurpeko uraren egoera ona egoera kimikoaren eta egoera kuantitatiboaren arabera ebaluatzen da. Egoera kuantitatiboa zenbatetako, funtsean, baliabide hidriko berriztagarrien eta erauzketen (ustiapen-indize deritzonaren bidez) arteko erlazioa erabiltzen da, orobat maila piezometrikoen eta deskarga naturalen eboluzioak; eta, egoera kimikoaren kasuan, indarrean dauden kalitate-arauak aplikatzen dira, beste parametro batzuen kontzentrazio-eboluzioen azterketez gain. Ingurumen Profil honetan lurpeko uraren egoera kimikoaren ebaluazioa aurkezten da. Egoera kuantitatiboari dagokionez, uneko eta aurreikusitako erauzketak ez dira inondik inora esanguratsuak eta, hori dela eta, jotzen da EAEn ez dagoela egoera kuantitatibo txarrean dagoen lurpeko ur-masarik.

Azkenik, bainatzeko uraren kalitatearen eboluzio-adierazlea dago, eragin zuzena duelako pertsonen osasunean ur-masen aisialdi-erabileran.

Ur-adierazleen sorta hautatua

ADIERAZLE SINTETIKOAK	POLITIKA PUBLIKOEN GARRANTZIA
<i>Lurgaineko ur-masen egoera/potentzial ekologikoa</i>	Ur-ekosistemen egituraren eta funtzionamenduaren kalitatearen eboluzioa azaltzen du.
<i>Lurgaineko ur-masen kondizio fisiko-kimiko orokorrak</i>	Kondizio fisiko-kimiko orokorren eboluzioa azaltzen du, ekosistemen funtzionamendua eta adierazle biologikoei loturiko helburuak lortzea bermatzen baitute.
<i>Lurpeko ur-masen egoera kimikoa</i>	Lurpeko ur-masen egoeraren berri ematen du adierazle honek, indarrean dauden kalitate-arauen betetze-mailaren arabera.
<i>Bainatzeko uraren kalitatea</i>	Bainatzeko uraren kalitatearen eboluzioaren berri ematen du, osasunaren ikuspegitik.

Gehiago jakiteko


<i>Honekin lotutako beste adierazle batzuk</i>	Ingurumen Profil honetarako aukeratutako adierazle sintetikoez gainera, Uraren Euskal Agentziak EAeko uraren egoeraren segimendu-sareei loturiko datu ugari ditu, eta bere webgunean argitaratzen ditu. Informazio xehe hori hemen kontsultatu daiteke: http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/eu/contenidos/informacion/calidad_aguas/eu_doc/redes.html
--	---

2.3.1 Lurgaineko ur-masen egoera/potentzial ekologikoa eta egoera fisiko-kimikoa


<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Ur-masen egoera ekologikoa eta egoera fisiko-kimikoa, «ibaiak» • Ur-masen egoera ekologikoa eta egoera fisiko-kimikoa, «trantsizio-urak» • Ur-masen egoera ekologikoa eta egoera fisiko-kimikoa, «kostako urak» • Ur-masen egoera ekologikoa eta egoera fisiko-kimikoa, «aintzirak eta hezeguneak»
<i>Kalkuluak</i>	<p>Lurgaineko ur-masen egoera/potentzial ekologikoa adierazle biologikoen, fisiko-kimikoen eta hidromorfologikoen konbinazioak zehazten du. Adierazle horiek aldatu egiten dira uraren kategoriaren eta izaeraren arabera. Lurgaineko ur-masen egoera ekologikoa ebaluatzeko. Ebaluazio hori egiteko, egoera aldatu gabea edo erreferentziako egoerarekiko distortsio- edo desbideratze-mailari erreparatu zaio. Adierazle biologikoen kasuan, ur-masan behatutako balioen eta masa mota horri dagozkion erreferentzia-balioen arteko erlazioa aztertu da.</p> <p>EAEko lurgaineko ur-masen egoeraren zaintza-sareen esparruan, ahalegin handia egin da egoera biologikoa, fisiko-kimikoa eta hidromorfologikoa kalifikatzeko sistemak garatzeko eta eskura izateko eta horiek ur-masa naturaletan eta ur-masa biziki eraldatueta aplikatzeko.</p>
<i>Unitateak</i>	<p>Ur-masen kopurua eta ehunekoa, motako. Ur-masa naturalak bost egoera-ekologikotan sailkatzen dira: «oso ona», «ona», «erdibidekoa», «desegokia» eta «txarra». Ur-masa artifizialen edo oso eraldatuen kasuan, «potentzial ekologikoa» ebaluatzen da eta lau mota bereizten dira: «maximoa edo ona», «moduzkoa», «desegokia» eta «txarra».</p> <p>Baldintza fisiko-kimiko orokorra bost kasetan sailkatzen da: oso ona, ona, moduzkoa, desegokia eta txarra.</p>
<i>Iturria</i>	Uraren Euskal Agentzia Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Ur-masen eboluzioa, «ibaiak»

EAEko "ibaiak" ur-masen egoera ekologikoaren bilakaera



EAEko "ibaiak" ur-masen egoera fisiko-kimikoaren bilakaera




Funtsezko mezua

EAEko «ibai» ur-masen egoera edo potentzial ekologikoak eboluzio positiboa agertzen du. 2012an, aztertutako 111 ur-masetatik, 52k (% 47) ingurumen-helburuak betetzen zituzten eta egoera/potentzial ekologiko ona edo oso ona zuten. 26k (% 23, azken bost urteetako ehuneko baxuena) egoera/potentzial txarra edo desegokia dute, hau da, ingurumen-helburuak betetzetik urrun daude.


«Ibai» ur-masen egoera fisiko-kimikoa ere eboluzio positiboa izaten ari da. 2012an ez zen erregistratu egoera txar edo desegokian zegoen ur-masarik, eta aztertutako masen % 91k egoera oso ona edo ona agertu zuen. Hortik ondorioztatu daiteke unera arte uraren kalitate fisiko-kimikoa hobetzeko egin diren ekintza zuzengarriak emaitzak ematen ari direla. Gainera, leheneratze fisiko-kimikoa ur-ekosistemaren leheneratze-maila osoagoa lortzea ahalbidetzen duen lehen urratsa da.

Ur-masen eboluzioa, «trantsizio-urak»

EAEko "trantsizio-urak" ur-masen egoera ekologikoaren bilakaera



EAEko "trantsizio-urak" ur-masen egoera fisiko-kimikoaren bilakaera



Funtsezko mezua

Azken bost urteetan, trantsizio-uraren egoera ekologikoa 2010ean izan zen onena, urte horretan ez baitzen ur-masa bakar bat ere egoera txarrekotzat sailkatu eta ur-masen % 30 egoera ekologiko onekotzat jo baitzen. Azken bi urteetan, egoerak zertxobait okerrera egin du 2010. urtearekiko.


2012ko datuek agerian uzten dute Bidasoak eta Urumeak betetzen dituztela ingurumen-helburuak (egoera/potentzial ona edo oso ona dutela, alegia). Nabarmentzekoa da 2012an moduzko egoerakotzat sailkatu ziren zenbait masa helburuak lortzetik oso gertu daudela.

Egoera fisiko-kimikoari dagokionez, helburuak masen % 75 inguruan betetzen dira. 2012an, helburuak lortzen ez dituzten masak Oiartzun, Oka barnealdea, Nerbioi kanpoaldea eta Nerbioi barnealdea dira.


Halako masen egoerak arto osoaren egoera islatzen duenez, pentsa liteke ibaien kasuan espero den hobekuntza horietatik gero trantsizio-uraren ere hautematea.

Ur-masen eboluzioa, «kostako urak»

EAEko "kostako urak" ur-masen egoera ekologikoaren bilakaera



EAEko "kostako urak" ur-masen egoera fisiko-kimikoaren bilakaera




Funtsezko mezua

EAE n lau ur-masa daude kostako ur gisa identifikatuta: Kantabria-Matxitxako, Matxitxako-Getaria, Getaria-Higer, Mompas-Pasaia. Lau masa horietan egoera ekologikoa nahiko egonkor mantendu da azken urteetan. 2011n eta 2012an lau ur-masak egoera ekologiko oneko gisa sailkatuta egon dira.

Lau ur-masa horien egoera fisiko-kimikoa oso ontzat sailkatzen da. Kasu honetan, balio horiek mantendu egin dira gutxienez azken bost urteetan.

Ur-masen eboluzioa, «aintzirak-hezeguneak»

EAEko "aintzirak-hezeguneak" ur-masen egoera/potentzial ekologikoaren bilakaera



Funtsezko mezuak

Aintzira-hezegune gisa identifikatutako bederatzi ur-masen egoera/potentzial ekologikoen denetiko joera dute, baina, oro har, positiboa. 2012an, masa horietako bat (Carravalseca Urmaela - Guardiako urmaelgunea) egoera ekologiko txarrean zegoen eta, beste bat (Altubeko urmaelgunea - Monrealgo istila), egoera onean. Bi masak (Añanako Gatzagak eta Carralogoño - Guardiako Urmaelgunea) potentzial (lehenak) eta egoera (bigarrenak) moduzkoa agertzen dituzte. Beste bostek (Salburuko Istila eta Betoñuko Ihidoia, Musko - Guardiako Urmaelgunea, Salburuko Istila eta Arkauteko Ihidoia, Arreko Aintzira eta Prao de la Paul Aintzira) egoera/potentzial ekologiko desegokia dute, beraz badago zertan hobetu oraindik arlo horretan.

Gaur arte ez da aintzirak eta hezeguneak tipologiako bederatzi ur-masen (7 masa natural eta 2 artifizial) egoera fisiko-kimikoa baloratu kondizio orokorretan.

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Egoeraren adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2008/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net EAEko lurpeko ur-masen segimendu-sarea, Uraren Euskal Agentziaren webgunean argitaratutako datuak: http://www.uragentzia.euskadi.net

2.3.2 Lurpeko ur-masen egoera kimikoa

<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Lurpeko ur-masen egoera kimikoa
<i>Kalkuluak</i>	Lurpeko ura kontrolatzeko oinarrizko sareak EAEko akuiferoen puntu esanguratsuenen segimendua egiten du. Puntu horietan bi hilean behin egoera kimikoaren adierazgarri diren aldagaiak kontrolatzen dira (fisiko-kimika orokorra). Egoera kimikoa 2006/118/CE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera ebaluatzen da. Zuzentaru horrek zenbait parametro (nitratoak, plagiziden substantzia aktiboak) ezartzen ditu, eta parametro horiek gainditzen direnean jotzen da ur-masek ez dutela egoera kimiko ona. Halaber, poluzio antropikoa adierazten duten zenbait parametro identifikatzen dira eta horien kasuan ere, gaindituz gero, ur-masek egoera kimiko ona ez dutela adierazten duten zenbait atalase-balio ezarri dira.
<i>Unitateak</i>	Egoera kimiko onean dauden edo egoera kimiko ona izatera iristen ez diren kontrol-puntuen kopurua.
<i>Iturriak</i>	Uraren Euskal Agentzia Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

EAEko lurpeko uraren egoera kimikoa egonkor mantendu da azken urteetan. Poluzio kimikoko arazoak dituzten ur-masak argi identifikatuta daude: Gernika, konposatu organiko lurrunkorrez; Miranda de Ebro eta Gasteiz, nitratoz. Gainerakoan egoera kimiko ona mantentzen da eta, beraz, ingurumen-helburuak betetzen dira.


Informazio gehiago


<i>Mota (DPSIR)</i>	Egoeraren adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2007/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net EAEko lurpeko ur-masen segimendu-sarea, Uraren Euskal Agentziaren webgunean argitaratutako datuak: http://www.uragentzia.euskadi.net

2.3.3 Bainatzeko uraren kalitatea

<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Bainatzeko uraren kalitatearen egoera
--------------------	---

EAEko bainatzeko uraren kalitatearen bilakaera





<i>Kalkuluak</i>	Bainatzeko uraren kalitatea maiatzetik urrira neurtzen da EAEko hondartzak guztietan. Hamabost egunetik behin zehazten da laginketa-puntuetan (astean behin uztailean eta abuztuan) eta, emaitzen arabera, uraren kalifikazioa eta bainatzeko baldintzak ezartzen dira emaitza berriak izan arte.
<i>Unitateak</i>	Ehunekoa, hondartzetako eta bainu-zonetako laginketa-puntuetan oinarrituta. Kalifikazio-tartea: ona, onargarria, txarra.
<i>Iturriak</i>	Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Europako Ingurumen Agentzia (EEA).

Funtsezko mezuek

Azken hamabi urteotako EAEko bainatzeko uraren kalitatearen joera nabarmen positiboa da. 2012an, lagindutako bainatzeko uraren % 90ek kalifikazio ona zuen eta % 8k kalitate-maila onargarria zuten. Datu horiek Europar Batasunerako eskuragarri dauden azken datu agregatuak (2011koak dira) baino hobekak dira (EB27ko bainatzeko uraren % 80k kalitate ona zuten, % 13k balio onargarriak zituzten eta % 1,5 ez zen eskatutako maila minimora iristen. Gainerako % 5,5 bainatzea debekatuta dauden eremuei edo behar adina lagindu ez diren eremuei dagokie).

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Egoeraren adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2000/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Ingurumen Osasunari buruzko webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.osakidetza.euskadi.net

2.4 LURZORUA

Mezu gakoan laburpena

Azken urteotan lehenengo aldiz, 2012an EAEn azalera artifizialduaren ehunekoa jaitsi egin da. Bestalde, ikertutako eta leheneratutako lurzoru poluituen kopurua eta azalera etengabe ari da igotzen.

Lurzorua funtsezko elementua da eta giza jarduera gehien euskarria da. Baliabide horren funtzio-aniztasuna eta eskuragarritasun mugatua dela eta, gero eta lurzoru-erabilera gehiago elkartzen dira (eta lurzoria hondatzearen kausa nagusietako bat ere bada horixe bera).

EAE azalera txikiko eta industria-tradizio handiko lurraldea da. Hori dela eta, gure ingurunean identifikatutako lurzoruaren degradazio-forma esanguratsuenak artifizialtzea eta poluzioa dira.

Artifizialtzearen alderdia oso garrantzitsua da, populazio-dentsitate handiko herrialde industrializatu eta garatu izaki, non populazioa ibarretan kontzentratuta baitago. Hori guztia dela eta, lurzoria intentsitate handiz eta oso modu kokatuan kontsumitzen da lehen eta bigarren etxebizitzak, ekoizpen-establezimenduak eta garraio-azpiegiturak eraikitzeko.

Lurzoruen poluzioari dagokionez, EAEn lurzoru-degradazioaren modalitate garrantzitsuena da, iragan eta orainaldi industrialaren ondorioz. EAeko ingurumen-administrazioak poluzioa lehentasunezko mehatxutzat jotzen du lurzoruari dagokionez, giza osasunari eta ekosistemei ekar diezaikeen arriskua dela eta. Hori dela eta, ahalegin eta erantzun publiko nahiz pribatu gehien kontzentratzen ditu. Ildo horretan, EAeko Lurzoru poluituen 2007-2012 lehen Planaren indarraldia amaitu ostean, arlo horretan hobetzeko helburu eta programa berriak planteatzeko ordua da.

Hori dela eta, Ingurumen Profil honetan ingurumen-adierazle hauen eboluzioa aurkezten da: batetik, EAeko lurzoru artifizialduen ehunekoa, ingurunearen gaineko presioaren intentsitatea adierazten duena. Bestalde, poluituta egon zitezkeen eta azken urteetan ikertu eta leheneratu diren lurzoruaren kopurua eta azalera, EAeko administrazioak zuzendutako erantzun irmoaren adierazle gisa.

Lurzoru-adierazleen sorta hautatua

ADIERAZLE SINTETIKOAK	POLITIKA PUBLIKOEN GARRANTZIA
<i>Lurzoruaren artifizializazioa</i>	EAEEn hirigintzaren ondorioz artifizialdutako lurzoru-azaleraren eboluzioaren berri ematen du.
<i>Poluituta egon litezkeen lurzoru ikertuak</i>	Ikertu diren eta haien poluzioaren helmena eta ezaugarriak jakinak diren lurzoruen eboluzioaren berri ematen du.
<i>Leheneratutako lurzoru poluituak</i>	Kalitatea eraldatua duten eta merkatuan berriro sartzea ahalbidetzeko ekintzak izan dituzten lurzoruen eboluzioaren berri ematen du.

Gehiago jakiteko


<p><i>Honekin lotutako beste adierazle batzuk</i></p>	<p>Ingurumen Profil honetarako aukeratutako adierazle sintetikoez gainera, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak lurzoruen artifizializazioari buruzko informazio estatistiko xehea du. Datu osagarri horiek UDALPLANari loturiko estatistika ofizialetan kontsultatu daitezke (Egitura Orokor eta Organikoa, eta EAEko udalerrietako lurzoruen kalifikazioa). http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-estamapt/eu/</p> <p>Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean lurzoruen poluzioari loturiko alderdi eta izapideei buruzko informazio osagarria ere aurki daiteke, helbide honetan: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-suelo/eu/</p> <p>Poluituta egon litezkeen EAEko lurzoruen inbentarioa GeoEuskadi bisorearen bidez kontsulta daiteke: http://www.geo.euskadi.net</p>
---	---

2.4.1 Hirigintza-ekintzak eragindako lurzoru-artifizializazioa

Adierazleak

- EAEko lurzoru artifizialduen azaleraren eboluzioa.

Hirigintzaren ondorioz artifizialdutako EAEko lurzoruaren ehunekoa (%)



Kalkuluak

EAE osoko Lurzoruaren Egitura Orokor eta Organikoa eta Kalifikazioa aurkezten duen UDALPLAN datu-basetik ateratako datuak, lurzoru urbanizaezinen kasuan Lurralde Antolamendurako Artezpideetako kategoria-sailkapenei jarraituz.

Unitateak

Hirigintza-ekintzak artifizialdutako azaleraren ehunekoa (kategoriak: bizilekuetarako, jarduera ekonomikoetarako, ekipamenduetarako, oinarritzko azpiegituretarako, errepideetarako, portuetarako, aireportuetarako eta burdinbideetarako lurzoruak).

Iturriak

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

EAEko lurzoru artifizialduen ehunekoak gora egin du azken urteetan. Baina, 2010aren ondoren, urtean gertatzen den lurzoru-artifizializazioa moteldu egin dela ikus daiteke (% 1,07ko urte arteko bariazioa 2010ean; % 0,57koa, 2011n; eta % 0,36, 2012an). 2012an artifizialdutako azalera plangintza-berrikuspenei (Arrazua-Barrundia, Aramaio eta Berastegi) eta AP-1 eta AHT eraikitzeari dagokio.


Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Presio-adierazlea
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2005/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net UDALPLAN datu-basea: http://www.geo.euskadi.net/udalplan/visor/viewer.htm?&lang=eu


2.4.2 Ikertu eta leheneratu diren poluituta egon zitezkeen lurzoruak

<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Ikertu diren poluituta egon zitezkeen lurzoruen kopuruaren eta azaleraren eboluzioa Leheneratu diren poluituta egon zitezkeen lurzoruen kopuruaren eta azaleraren eboluzioa
--------------------	--

Poluituta egon zitezkeela-eta ikertu diren lurzoruak



Bestela erabiltzeko berreskuratu diren lurzoru poluituak



<i>Kalkuluak</i>	Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak bildutako informazioa, lurzoruaren poluzioaren prebentzioari eta zuzentzeari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen arabera lurzoruaren kalitatearen deklarazio-prozeduraren esparruan izapidetutako espedienteetan oinarrituta.
<i>Unitateak</i>	Ikertutako eta leheneratutako lurzoruen kopurua eta azalera. Urteko datu metatuak
<i>Iturriak</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

Ikerketaren eta leheneratzearen esparruetako joerak paraleloak dira, bi jarduerak erlazionatuta baitaude. Bi kasuetan, argi ikusten da 2005ean (otsailaren 4ko 1/2005 Legea) eta 2006an (urriaren 10eko 199/2006 Dekretua) lurzoru poluituei buruzko lege espezifiko eta integralak onartzeak inflexio-puntu bat eragin zuela, ikertzeari eta poluzioari loturiko lanak indartzeko. 2007an EAEko Lurzoru poluituen 2007-2012 Plana onartzeak are gehiago indartu zuen joera positibo hori. Hartara, lurzoru poluituen ikerketen eta leheneratzeen aurrerapen-erritmoak etengabe egiten du gora, poluituta egon litezkeen 1.865 toki ikertutara iritsi arte azken hamabi urteetan, hots, 2.268 hektareako azalera ikertu da. Erabilera berrietarako egiazki leheneratutako lurzoruei dagokienez, nabarmentzekoa da aldi horretan bertan poluitutako 524 toki leheneratu direla guztira, hots, 659,86 hektarea.

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Erantzun-adierazlea
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2000/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Geure datuak
<i>Gehiago jakiteko</i>	Ingurumen Profil honetarako aukeratutako adierazle sintetikoez gainera, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak lurzoruen poluzioaren prebentzioari eta zuzentzeari buruzko informazio ugari du. Informazio xehakatu hori hemen kontsultatu daiteke: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-suelo/eu/

2.5 BIODIBERTSITATEA-INGURUNE NATURALA

Mezu gakoan laburpena

EAEEn identifikatutako habitat moten uneko kontserbazio-egoera denetarikoa da oraindik. Azken urteetan, Eusko Jaurlaritza ahalegin handia egiten ari da Kontserbazio Eremu Bereziak izendatzen eta horietarako kontserbazio-neurriak eta kudeaketa-tresnak zehazten. 2012. eta 2013. urteetan aurrerapenak egin dira esparru honetan.

Bereziki zaila da aldi behin informazioa jakinaraztea, biodibertsitate-arloaren egoera eta joerak ebaluatzeko. Biodibertsitatearen eboluzio-erritmo esanguratsuek ez dute programazio politikoaren ohiko zikloekin zerikusi handirik, hau bezalako urteko txostenekin edo ezagutzen ditugun administrazio-mugekin. Hori dela eta, biodibertsitatea gai-esparru desberdina eta berezia da besteekin konparatuta, datu eskuragarriak aztertzei dagokionez. Oro har, epe laburrean eta esparru geografiko mugatu batean bildutako informazioa partziala da eta testuinguru ondo zehaztu behar da, ondorio okerretara ez iristeko.

Ildo horretan, Ingurumen Profilean sartu beharreko adierazle sorta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean kudeatutako informazioan oinarritu da biodibertsitateari dagozkion lan-ildo esanguratsuenetako bitan: biodibertsitatearen osagaia eta eremu babestuak.

Biodibertsitatearen osagaiei dagokienez, EAEEn identifikatutako habitat kontserbazio-egoera orokorra, espezie esanguratsuen kontserbazio-egoera orokorra eta hegazti ugaltzaile arrunten segimendua hartzen dira kontuan. Lehenengoz aipatutako bi adierazleak habitat naturalak, basafauna eta basafloa kontserbatzei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauan (Habitat Zuzentaria) ezarritako irizpide eta metodologietan oinarrituak dira. Hegazti arrunten bilakaerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak segimendu-programa bat kudeatzen du urte batzuetatik on. Hegazti ugaltzaile arrunten adierazlea zabal onartzen da ekosistemen osasunaren adierazle ekologiko bezala.

Eremu babestuei dagokienez, bada EAEko eremu babestuen egoera-adierazle bat (Natura 2000 Sarea). Natura 2000 Sarea 92/43/CEE Zuzentarauan (Habitat Zuzentaria) zerrendatzen diren habitat naturalez osatuta dago, orobat hegazti basatiak kontserbatzei buruzko 2009/147/CE Zuzentarauan (Hegaztien Zuzentaria) aipatzen diren Hegaztien Babes Bereziaren Zonak.

Habitat Zuzentariak komunitate-mailako intereseko hainbat habitat ezartzen ditu, orobat komunitate-mailako intereseko habitat horiek behar bezalako kontserbazio-egoeran atxikitze edo horretara leheneratzeko helburua duten neurriak proposatzen ditu. Zuzentariak ezarritako helburua lortu ahal izateko, tresna nagusi bat du Europarako: Kontserbazio Eremu Bereziaren Sare Ekologikoa (BZ). Bestalde, Hegaztien Zuzentariak Hegaztientzako Babes Bereziaren Zonak (HBBZ) izendatzen ditu, orobat dagozkien kontserbazio-neurriak. EAEEn, BBZ eta HBBZ eremuen izendatze-eboluzioaren adierazleak Natura 2000 Sarea programa zein heinetaraino ezarri den adierazten du.

Habitaten eta espezie esanguratsuen kontserbazio-egoera orokorraren adierazleei dagokienez, gogoratu behar da unera arte aplikatu diren biltzaile- eta segimendu-metodologiak gerora datu horiek Europa mailan integratzeko eta interpretatzeko diseinatuta daudela. Hori dela eta, EAEko lortzen diren emaitzen analisia erlatibizatu egin behar da.

Biodibertsitate-adierazleen sorta hautatua


ADIERAZLE SINTETIKOAK	POLITIKA PUBLIKOEN GARRANTZIA
<i>Habitaten kontserbazio-egoera orokorra.</i>	EAEEn dauden komunitate-mailako intereseko habitaten egoera orokorraren berri ematen du, Europa mailan sei urtean behin 92/43/CEE Zuzentarauak eskatzen duen habitat-segimendua egiteko garatutako metodologiarekin bat.
<i>Espezie esanguratsuen kontserbazio-egoera orokorra.</i>	EAEEn dauden komunitate-mailako intereseko espezieen egoera orokorraren berri ematen du, Europa mailan sei urtean behin 92/43/CEE Zuzentarauak eskatzen duen habitat-segimendua egiteko garatutako metodologiarekin bat.
<i>EAEko eremu babestuen egoera (Natura 2000 Sarea)</i>	EAEko Kontserbazio Eremu Bereziak eta Hegaztientzako Babes Bereziko Zonak izendatzen egindako aurrerapenen berri ematen du.

Gehiago jakiteko

<i>Honekin lotutako beste adierazle batzuk</i>	Ingurumen Profil honetarako aukeratutako adierazle sintetikoek gainera, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak, bere webgunean, ingurune naturalarekin erlazionatutako informazio ugari argitaratzen du: biodibertsitatea, geodibertsitatea, lekuak, ekosistemak eta habitatak, espezieak, paisaiak eta abar. Informazio xehakatu hori webgune honetan kontsultatu daiteke: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-bio/eu/
--	---

2.5.1 Habitaten kontserbazio-egoera orokorra

<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Komunitate-mailako intereseko habitaten kontserbazio-egoera orokorra EAEEn 2007-2012 aldian
--------------------	---



<i>Kalkuluak</i>	92/43/CEE Zuzentarauko 17. artikularen arabera egindako sei urteko txostena, Europako Batzordeak eta Estatu Kideek, Europako Ingurumen Agentziaren Dibertsitate Biologikorako Europako Gai Zentroaren (ETC-BD) laguntza teknikoarekin, adostutako metodologiarekin bat. Zuzentarauak «Kontserbazio-egoera onari» buruz egiten duen definizioan oinarritutako ebaluazioa (habitat natural baten kontserbazio egoera ona dela jotzen da eremu horretan dauden banaketa-eremua eta azalerak egonkorak direnean edo handitzen ari direnean; epe luzean mantentzeko beharrezko egitura eta funtzio espezifikoak daudenean eta existitzen jarraituko dutela aurreikusten denean, eta bertako espezie tipikoen kontserbazio-egoera ona denean).
<i>Unitateak</i>	EAEen identifikatutako habitaten ehunekoa kontserbazio-egoeraren arabera: ona, aurkakoa-desegokia, aurkakoa-txarra, ezezaguna.
<i>Iturriak</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

EAEen identifikatutako habitatetatik, % 18k nabarmen egoera ona agertzen dute. Gainerakoari dagokionez, % 35ek kontserbazio-egoera orokor txarra du; eta kasuen % 47tan, habitataren egoera orokorak orotariko ebaluazioak agertzen ditu, barrutiei, okupatutako azalerari, egiturari eta funtzio espezifikoiei edo etorkizunerako aukerei dagokienez.

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Egoeraren adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2007/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Sei urtean behingoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Eskualdeko datuak, Europako estatistika ofizialean integratzeko.
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologiko eta geologikoaren webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net

2.5.2 Espezieen kontserbazio-egoera orokorra

Adierazleak

- Komunitate-intereseko espezieen kontserbazio-egoera orokorra EAEn 2007-2012 aldian

			EAE	Espainia
<i>Mustela lutreola</i> (Europako bisoia)	Atlantikoko eskualde biogeografikoa	Egoera	Txarra	Txarra
		Joera	Gainbeheran	Gainbeheran
	Mediterraneoko eskualde biogeografikoa	Egoera	Txarra	Txarra
		Joera	Gainbeheran	Gainbeheran
<i>Galemys pyrenaicus</i> (Pirinioetako muturluzea).	Atlantikoko eskualde biogeografikoa	Egoera	Txarra	Gainbeheran
		Joera	Txarra	Gainbeheran
	Mediterraneoko eskualde biogeografikoa	Egoera	Desagertua	Txarra
		Joera		Gainbeheran
<i>Lutra lutra</i> (igaraba)	Atlantikoko eskualde biogeografikoa	Egoera	Txarra	Aldekoa
		Joera	Ezezaguna	Ezezaguna
	Mediterraneoko eskualde biogeografikoa	Egoera	Desegokia	Aldekoa
		Joera	Ezezaguna	Ezezaguna

OHARRA: EAEk 17. artikuluko 2007-2012 ebaluazio-aldian bakarrik du bisoi europarraren berri emateko obligazioa. Dena dela, igarabaren eta Pirinioetako muturluzearen kontserbazio-egoerari buruzko informazio eguneratua eskuragarri dagoenez, bi espezie horiek ere sartu dira sei urteko txostenean.

<i>Kalkuluak</i>	92/43/CEE Zuzentarauko 17. artikularen arabera egindako sei urteko txostena, Europako Batzordeak eta Estatu Kideek, Europako Ingurumen Agentziaren Dibertsitate Biologikorako Europako Gai Zentroaren (ETC-BD) laguntza teknikoarekin, adostutako metodologiarekin bat. Ebaluazioa Zuzentarauan egiten den «Kontserbazio-egoera onaren» definizioan oinarrituta dago (espezie baten kontserbazio-egoera ona dela jotzen da baldin eta espeziearen populazio-dinamikari buruzko datuek adierazten badute espezie horrek irauten duela eta epe luzean bere habitatetako funtsezko elementu bat izaten jarraitu dezakeela; espeziearen banaketa-eremu naturala ez denean murrizten edo ez dagoenean murriztua izateko arriskurik aurreikusten den etorkizunean; eta populazioak epe luzean irauteko behar bezain handiak diren habitatak daudenean eta mantentzeko aukerak daudenean).
<i>Unitateak</i>	EAEEn aurkitu diren batasun mailako intereseko espezieen kontserbazio-egoera globala eta joera globala: ona, aurkakoa-desegokia, aurkakoa-txarra, ezezaguna
<i>Iturriak</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

EAEEn Europako bisoiaren eta Pirinioetako muturluzearen 2007-2012 aldiko kontserbazio-egoeraren ebaluazio globalak emaitza txarrak eman ditu, gainbeherako joera orokorra baitute biek. Balorazioa bat dator Espainiako balorazioarekin.

Igarabari dagokionez, EAEko banaketa-eremuaren eta populazioen segimenduak oso emaitza aldatokorrak eman ditu urte batetik bestera; izan ere, ugaritze-aldiak eta gainbehera-aldiak tartekatu dira. Oraingoz ez da posible horien kontserbazio-egoeraren patroia edo joera argirik ezartzea, beraz parametro hori «ezezaguntzat» jo da.



Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Egoeraren adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2007/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Sei urtekoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Eskualdeko datuak, Europako estatistika ofizialean integratzeko.
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologiko eta geologikoaren webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net


2.5.3 Hegazti ugaltzaile arrunten segimendua

Adierazleak

- Hegazti ugaltzaile arrunten bilakaera EAEn



Europako hegazti arruntak: populazio-indizea (1980=100)*



* «Aurrerapenak biodibersitateari buruzko 2010erako Europako helburuen lorpenetan. AEMAREN 4/2009 txostenaren laburpena» Ingurumen, Landagune eta Itsas Ministerioaren argitalpena.

<i>Kalkuluak</i>	Adierazlea kalkulatzeko, 1998 eta 2012 bitartean SEO/Birdlife-k abian jarritako «Sacre» (Hegazti ugaltzaile arrunten segimendua Espainian) segimendu-programaren bidez aplikatu zen landa-laneko metodologia bat erabili da. Metodologia horren oinarria da aleak laginketa-puntuetatik kuantifikatzea, lan hau egiten ari den Europako herrialdeetan Europa-mailako indizeak kalkulatzeko erabiltzen den bezalaxe.
<i>Unitateak</i>	Aldakuntza, datuak hartzen hasi zen urtearekiko; 1998. urtearekiko, hain zuzen.
<i>Iturriak</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politiken saila

Funtsezko mezuak

EAEko hegazti ugaltzaile arrunten eboluzioa hegazti-moten arabera aldatzen da. 2013an, nekazaritza-eremuei loturiko hegaztien ugaritasuna % 37 jaitsi da 1998 urtearekiko; eta baso-eremuei loturiko hegaztiena, berriz, % 72 igo da aldi horretan bertan.

Nekazaritza-eremuetako hegazti adierazgarriei dagokienez, populazio-beheratzeak uneko esplotazio-motekin zerikusia izan dezake. Azken laginketa-aldietan ugaritu diren espezie gehienak zuhaitz- eta baso-inguruneekin lotutakoak dira. Kasu batzuetan emaitza ez da estatistikoki esanguratsua, eskuragarri dagoen informazioak iradokitzen dituen joerak ez direlako matematikoki sendoak, eboluzioak ez duelako joera argirik edo joera-aldaketak aldaketa taxonomikoen ondorioz gertatu direlako besterik gabe.*


* EAEko hegazti ugaltzaile arrunten segimendu-programaren 2012ko txostenean jasotzen den analisitik hartua (http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/es/contenidos/inventario/sacre/es_doc/indice.html)(gaztelera)

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Egoeraren adierazleak
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datuen lehen eguna: 1998/01/01
	Datuen azken eguna: 2013/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Estatistika-mota</i>	Eskualdeko datuak, Europako estatistika ofizialean integratzeko
<i>Gehiago jakiteko</i>	EAEko Sacre programaren webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren web gunean argitaratuta dagoena http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/es/contenidos/inventario/sacre/es_doc/indice.html (gaztelera) Estatuko Sacre programaren koordinatzailearen web gunea (SEO/BirdLife) http://www.seo.org

2.5.4 Eremu babestuen egoera (Natura 2000 Sarea)

<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> EAEn 2012ko abenduan deklaraturata zeuden Kontserbazio Eremu Berezien (KEB) edo Hegaztientzako Babes Bereziak Zonen (HBBZ) kopurua
--------------------	--



- Eremu babestu izendatuen kopurua (KEBak gehi HBBZak)
- Izapidetze-bidean dauden KEB-en kopurua

<i>Kalkulua</i>	Kontserbazio Eremu Bereziak eta kontserbazio-helburu eta -neurrien Dokumentuak izendatzen dituzten Dekretuen azterketa
<i>Unitateak</i>	KEB eta HBBZ izendatutako espazio-kopurua
<i>Iturriak</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

Natura 2000 Sarea 147.000 hektarea inguru hartzen ditu EAEn, hots, EAEn guztizko azaleraren % 20,3 da. Azken urteetan, Eusko Jaurlaritza ahalegin handia egiten ari da Kontserbazio Eremu Bereziak izendatzen eta horietarako kontserbazio-neurriak eta kudeaketa-tresnak prestatzen. 2012, eta 2013, urteetan, aurrerapen handiak egin dira esparru honetan: hogeita bederatzi KEB eta HBBZ behin betiko onartu ditu Gobernu Kontseiluak (Arno, Izarraitz, Garate-Santa Barbara, Pagoeta, Hernio-Gazume, Aiako Harria, Uliá, Jaizkibel, Barbadunen itsasadarra, Astondoko duna, Learen itsasadarra, Artibai, Urolaren itsasadarra, Inurritza, Oriaren itsasadarra, Oria Garaia, Araxes, Leizaran, Urumea, Arakil, Barrundia, Ega-Berron, Txingudi eta Urdaibaiko ingurunea).

Beste hogeita bederatzi espazioak izapidetze-fasean daude. Horietako hamalau izapidetze-etapa aurreratuan daude (Entzia, Aldaiako Mendiak, Gasteizko Mendi Garaiak, Arabako lautadako Harizti Uharteak, Gorobel Mendilerroa, Arkamo-Gibijo-Arrastaria, Urkabustaizko Harizti Uharteak, Baia, Ebro, Omecillo-Tumecillo, Zadorra, Ihuda, Zadorra sistemetako urtegiak eta Salburua).

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Erantzun-adierazlea
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2007/06/05* *Gobernu Kontseiluak II. IEP 2007-2010 onartu zuen, non KEBak izendatzeko berariazko konpromisoa hartu baitzen.
	Datu-seriearen azken eguna: 2013/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Eskualdeko datuak, Europako estatistika ofizialean integratzeko.
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko dibertsitate biologiko eta geologikoaren webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net

2.6 BALIABIDE MATERIALAK

Mezu gakoaren laburpena


EAEko produktibitate materiala nabarmen ari da igotzen azken urteotan. Adierazle horrek zenbat eta balio handiagoa izan, orduan eta desmaterializatuagoa da ekonomia, BPGd-aren eboluzioak eta etxeko material-kontsumoarenak joera desberdinak dituzten neurrian.

Egungo gizartearen ezaugarrietako bat ondasunen ekoizpen eta kontsumoa da, eta horiek ingurumen-inpaktua dute, baliabide natural mugatuak erauztea, eraldatzea, erabiltzea eta desagerraraztea dela eta.

Eredu ekonomiko jasangarri baterantz eboluzionatzeko, nahitaez murriztu behar da material-kontsumoa, batez ere herrialde garatuetan. Hala, baliabide naturalen (ura, materialak eta energia) erabilera eta hazkunde ekonomikoaren zerbitzu ekologikoak (naturak hondakinak eta isurpenak bere gain hartzeko duen ahalmena) ondo bereizi behar dira.

Material-kontsumoa murrizteko prozesu horri desmaterializazio deritza. Ekonomia baten material-kontsumoa aztertzeko eta desmaterializazioa monitorizatzeko Material Fluxuen Analisia (MFA) erabiltzen da. MFA sistemaren eta ingurunearen artean trukaturako materialak kuantifikatzeko metodologia da.

EUSKAL AUTONOMIAKO BALIABIDE-FLUXUAREN SANKEY-DIAGRAMA. 2011KO DATUAK



Sarrerak		Irteerak	
	2011ko datuak (milioika tonatan)		% MZiren aldean
Bertako MZI	14.2		% 26
Estatuko beste erkidegoetako MZI	19.6		% 36
Munduko gainerako estatuetako MZI	20.3		% 38
Kanpoko MZI	39.9		% 74
MZI guztira	54.1		% 100
Estatuko beste erkidegoetako esportatua	19.4		% 36
Munduko gainerako estatuetara esportatua	11.5		% 21
Esportazioak	30.8		% 57
MBK	23.3		% 43
HONDAKINAK			
Sorkuntza	4.1		% 8
Birziklatzea	1.7		% 3
Balorizazio energetikoa	0.4		% 1
Suntitzea	2.1		% 4
Isurpenak, isuriak, metaketa, kontsumoa	19.2		% 35

OHARRAK

- oharra: MZiko datuek ez dute beren baitan hartu hondakin birziklatuen fluxua
- oharra: hondakinen kategorian hiri-hondakinak, hondakin arriskutsuak eta hondakin ez-arriskutsuak bildu dira. Hondakin arriskutsuei buruzko datuak 2010ekoak dira; beste guztiak, berriz, 2011koak.
- oharra: metaketak bere erabilera-fasean merkatuan geratzen diren ondare materialak irudikatzen ditu. Oraingoz, metaketaren datua ezin izan da bereizi isurketen eta isuriaren datuetatik. Metaketa EAEko ekonomian geratzen da.

Bi hauek dira MFAn gehien erabiltzen diren adierazleetako batzuk: Materialen Bertako Kontsumoa (MBK), ekonomia batek materialei dagokienez kanpoaldearekiko duen mendetasuna adierazten duena; eta Produktibitate Materiala, egoera ekonomikoa (BPGd-aren bitartez) material-kontsumoarekin erlazionatzen duena, eta ekonomiaren desmaterializazio-maila errealaren berri ematen du hala. Adierazle horiek 1989. urteaz geroztik kalkulatu dira EAerako, eta 2000. urteaz geroztik argitaratu dira. Beraz, Profil honetarako aukeratutako material-fluxuaren adierazleak dira.

Material-fluxuaren adierazleen sorta hautatua


ADIERAZLE SINTETIKOAK	POLITIKA PUBLIKOEN GARRANTZIA
<i>Materialen bertako kontsumoa (MBK)</i>	Zuzenean ekonomian erabilitako materialaren kantitate totalaren berri ematen du. Materialen zuzeneko inputari esportazioak kenduta lortzen da.
<i>Produktibitate materiala</i>	Ekonomiaren desmaterializazio-mailari eta ekoizpen eta kontsumo jasangarriko ereduatarantz egindako aurrerapenei buruzko informazioa ematen du. BPGd-aren balioa zati MBKren balioa eginda lortzen da.

Gehiago jakiteko

<i>Honekin lotutako beste adierazle batzuk</i>	Ingurumen Profil honetarako aukeratutako adierazle sintetikoek gainera, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak eskura ditu eta bere webgunean argitaratu ditu EAEko material-fluxuaren kontu osoak, Sailaren eragiketa estatistikoetako bat denez. Informazio hori hemen kontsultatu daiteke: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net
--	---

2.6.1 Materialen bertako kontsumoa

<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> Materialen Bertako Kontsumoaren eboluzioaren indizea, 2005-2011
--------------------	---



<i>Kalkuluak</i>	Materialen Bertako Kontsumoa (MBK) ekonomian zuzenean erabilitako material-kantitate total gisa definitzen da. MBK lortzeko, materialen zuzeneko inputari esportazioak kendu behar zaizkio. MBKn ez dira lehengaien eta produktuen inportazioei eta esportazioei loturiko fluxu ezkutuak ageri.
<i>Unitateak</i>	2005eko oinarri-indizea=100
<i>Iturriak</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila Europako Estatistika Erakundea, Eurostat

Funtsezko mezuak

Nolabaiteko korrelazioa hautematen da Materialen Bertako Kontsumoaren eta egoera ekonomikoaren artean, bai EAEn, bai Europan. Nolanahi ere, EAEko aldakuntzak nabarmenagoak dira Europar Batasunekoak baino, Europar Batasunean kontsumoa geroago hasi baita jaisten eta maldak leunagoak baitira. 2011n, joera-aldaketa arina hauteman da Europar Batasunean. Baina EAEn, 2011n, MBKa bat-batean murriztu da; hori, hasiera batean, ulertzekoa da inportazioak murriztu direlako eta esportazioak, areagotu.



Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Presio-adierazlea
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2005/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2011/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jaso)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net Europako Estatistika Erakundearen (Eurostat) webgunea: http://http://epp.eurostat.ec.europa.eu

2.6.2 Produktibitate materiala

Adierazleak

- Produktibitate materiala 2005-2010



<i>Kalkuluak</i>	Produktibitate materiala Barne Produktu Gordinaren (2005koa oinarri hartuta) eta Materialen Bertako Kontsumoaren (MBK) arteko koefiziente gisa definitzen da.
<i>Unitateak</i>	2005eko oinarri-indizea=100
<i>Iturriak</i>	Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saila Europako Estatistika Erakundea, Eurostat

Funtsezko mezuak

Produktibitate materialaren adierazlea definitzen den bezalaxe, adierazlearen balio handiagoek ekonomiaren desmaterializazio handiagoa adierazten dute, BPGd-aren eboluzioak eta MBKaren eboluzioak joera desberdinak dituzten heinean. Hartara, 2006 eta 2009 bitartean, EAEko Materialen Zuzeneko Kontsumoak nabarmenago egin du behera aldi horretan bertan BPGd-ak agertu duen beherakadarekiko. Hala, atzeraldi ekonomikoaz gainera, kontsumoa materialak eraginkortasun handiagoz kontsumitzen direlako ere jaitsi da. Gauza bera gertatzen da EB-27rako, nahiz eta, kasu honetan, desmaterializazioaren osagaia argiago hautematen den 2008tik aurrera eta mantendu egiten den 2010ean. Joera-aldaketa deigarriena izan da EAEko produktibitate materiala 2011n nabarmen igo izana; krisia dela eta, EAEko merkatua murriztu egin da eta horrek bi efektu eragin ditu: esportazioak igotzea (industriek merkatua EAetik kanpo bilatzen baitute) eta materialen bertako kontsumoa murriztea.

EAEko 2011ko Materialen Bertako Kontsumoa Europar Batasuneko (EB-27) herrialdeetako BPGd-arekin konparatuta, ikus daiteke EB-27ko batezbestekoa baino BPGd handiagoa duten lurraldeen artean, EAE dela *per capita* materialen bertako kontsumo baxuena duena.

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Presio-adierazlea
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2005/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2012/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Estatistika ofiziala (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net Europako Estatistika Erakundearen (Eurostat) webgunea: http://http://epp.eurostat.ec.europa.eu

2.7 HONDAKINAK

Mezu gakoen laburpena

Industria-ekoizpenari loturiko hondakin-sorkuntzak (bai hondakin arriskutsuena, bai ez-arriskutsuena) desparekatzeko joera argia agertzen du industriaren BEGd-aren eboluzioarekiko. Horrek adierazten du EAEko ekoizpen-sektoreak hondakinen alorrean ingurumen-portaera arduratsuagoa eta jasangarriagoa duela.

Bestalde, oraindik ere hondakin-balorizazioaren bilakaera nabarmena den arren, oraindik beharrezkoa da hondakinetan dauden baliabideak berreskuratzeko bide hori sustatzea.

Hondakinaren kontzeptua nahitaez dago galeraren kontzeptuari loturik. Hondakin bihurtzen diren produktuak eta azpiproduktuak sortzeko erabilitako diruaren, baliabideen, denboraren eta ahaleginaren zati handi bat alferrik galtzen da hondakinekin.

Hondakinen eta horiek eragiten dituzten galeren arazoari aurre egiteko, hondakinen eskumena duten erakundeek konponbide bideragarri bakarra aurkitu dute: hondakinak sortzea eragozte eta saihestu ezin daitezkeen hondakinak baliabide bihurtzea, eta horiek irabaziak sortzea. Horretarako, hondakinak ez dira desagerrarazi behar (ez dute hondakindegia edo aprobetxamendu energetikorik gabeko erraustegi batean bukatu behar), alegia, ekoizpen-sisteman sartu behar dira berriro. Hori berrerabiltzearen, birziklatzearen eta balioztatzearen bidez baino ez da posible. Eragiketa horiek balioa sortzen dute, merkatuak irekitzen dituztelako, lanpostuak sortzen dituztelako eta lehengai eta baliabideak erosteko orduan diru asko aurrezte ahalbidetzen dutelako.

Honela deskribatu daiteke, funtsean, hondakinen edozein politika moderno oinarritzen den eta halakoak justifikatzen dituen logika: hondakinei aurrea hartzea eta hondakinak baliabide gisa ezagutzea eta aprobetxatzea sustatzea. Ildo horretan, «Baliabideen erabilera eraginkorra egiten duen Europarako ibilbide-orriak» -COM (2011) 571- argi asko definitu du Europaren 2020rako ikuspegia, zeinaren arabera «hondakinak baliabide gisa kudeatuko baitira. *Per capita* hondakinen indizeak beherakada nabarmena pairatuko du. Hondakinak birziklatzea eta berrerabiltzea ekonomikoki aukera erakargarria izango zaie eragile publiko eta pribatuei; izan ere, gaikako bilketa oso hedatuta egongo da eta bigarren mailako lehengaietarako merkatu funtzionalak garatuta egongo dira. Material gehiago birziklatuko dira, ingurumenean inpaktu esanguratsua dutenak zein funtsezko lehengaiak barne. Hondakinei buruzko legedia osorik aplikatuko da. Hondakin-garraio ilegala desagerrarazita egongo da. Material ez-birziklagarrietara mugatuko da energia-berreskuratzea; ia erabat desagerraraziko da hondakindegietara botatzea; eta kalitate handiko birziklatzea bermatuta egongo da». Ikuspegi horri dagokion gizarterari «birziklatzearen Europako gizarter» deritzo.

Ingurumen Profil honek EAE birziklatzearen gizarterantz hurbiltzeko egiten ari den aurrerapena zehazten duten adierazle sintetikoaren sorta baten informazioa aurkezten du.

Hondakin-adierazleen sorta hautatua

ADIERAZLE SINTETIKOAK	HONDAKINEN TIPOLOGIA	POLITIKA PUBLIKO EKIKO GARRANTZIA
<i>Sortutako hondakinak</i>	<i>Hiri-hondakinak/ Arriskutsuak / Industrial ez-arriskutsuak</i>	Hondakin-sorkuntzaren prebentzioan egindako aurrerapenen berri ematen du, sorkuntza absolutu gisa: Hondakin-sorkuntza murrizten ari gara?
<i>Hondakin-sorkuntzaren intentsitatea (sortzen diren hondakinak eboluzio ekonomikoarekiko)</i>	<i>Arriskutsuak / Industrial ez-arriskutsuak</i>	Hondakin-sorkuntzaren eta hazkunde ekonomikoaren arteko desparekatzean egindako aurrerapenen berri ematen du: Eraginkorragoa al da gure ekonomia eta, hala, hondakin gutxiago sortzen du? Sortzen dugun euro bakoitzeko, hondakin gehiago ala gutxiago sortzen dugu?
<i>Sortutako hondakinak, per capita</i>	<i>Hiri-hondakinak</i>	Udal-mailan hondakin-sorkuntzaren prebentzioan egindako aurrerapenen berri ematen du, herritarren portaeraren arabera (informazioaren, sentsibilizazioaren eta herritarrak prestatzearen inguruan hartutako neurrien arrakastarekin lotuta).
<i>Hondakin balorizatuak eta desagerraraziak</i>	<i>Hiri-hondakinak / Arriskutsuak / Industrial ez-arriskutsuak</i>	EAEko gizarteak birziklatzearen gizarterantz egin dituen aurrerapenen berri ematen du, non hondakinak baliabide gisa kudeatzen baitira

Gehiago jakiteko

*Honekin lotutako
beste adierazle
batzuk*

EAEko hondakinen alorreko adierazleei buruzko informazio-iturri nagusiak tipologiaka egiten diren hondakin-inbentarioak dira. Dokumentu honetarako aukeratu diren adierazleez gainera, Inbentarioek adierazle eta informazio gehigarri eta xehe asko eskaintzen dute, hondakinen sorkuntzari eta kudeaketari loturiko alderdi ugari buruzkoak. Honako hauek daude eskuragarri:

- Hiri Hondakinen Inbentarioa, 2005az geroztik urtero egiten dena, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituzten datuetatik abiatuta. Aurreko urteei dagokienez, Hiri Hondakinen Inbentario Historikoa dago (1980-2003)
- Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa, 1998ko inbentarioaz geroztik urtero argitaratua.
- Industria-hondakin ez arriskutsuen inbentarioa, 2003az geroztik urtero egiten dena.
- Eraikuntza eta eraisketako hondakinen inbentarioa. 2005az geroztik zenbatespenetan oinarrituta egin dena.

Inbentario horiek publikoak dira eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean daude eskuragarri (www.ingurumena.ejgv.euskadi.net), baita Ihoberen web-atariko Argitalpenak atalean ere. (www.ihobe.net).

Aipatutako inbentarioek Euskal Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan Eusko Jaurlaritzaren estatistika ofizial gisa jasota dauden hondakin-adierazleen sorta zabala elikatzen dute. Adierazle horiek www.euskadi.net atarian daude argitaratuta, Ingurumen eta Lurralde Politikako Organo Estatistikoaren webgunean.

2.7.1 Hiri-hondakinen sorkuntza eta kudeaketa

Zer dira hiri-hondakinak?

Dokumentu honi dagokionez, hiri- edo udal-hondakinak dira bizileku partikular, denda, bulego eta zerbitzuetan sortutako hondakinak, baita arriskutsutzat jotzen ez direnak eta haien izaera edo konposizioa dela-eta goian aipatu ditugun leku edo jardueratan sortutakoekin parekatu daitezkeenak ere.


Hauek ere hartzen dira hiri-hondakintzat:

- Bide publikoak, berdeguneak, aisialdiko guneak eta hondartzak garbitzearen ondorioz sortzen diren hondakinak.
- Etxeko animalia hilak, bai eta baztertutako altzari, tresna eta ibilgailuak ere.
- Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondorioz sortutako hondakinak eta zaborrak.


Adierazleak

- Guztira sortutako Hiri Hondakinak eta tratamendu motak
- Sorkuntza *per capita*


Hiri-hondakinen sorkuntza, guztira (urteko milaka tonatan)



Hiri-hondakinen kudeaketa (urteko milaka tonatan)



Hiri-hondakinak. Sorkuntzako, birziklatzeko eta suntsitzeko per capita tasak



Unitateak

Sorkuntza absolutuko datuak tona / urte-tan adierazten dira.

Per capita datuak kg / pertsona / urte-tan adierazten dira.

Tratamendu- eta bilketa-ehunekoak pisutan adierazten dira, urtean sortutako hondakinen guztizko pisuarekiko.

Iturria

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuzak

Sorkuntza. EAEn hiri-hondakinen sorkuntza totalak joera beherakor jarraitua atxiki du 2007az geroztik, ekonomia- eta kontsumo-krisialdiarekin bat.

Gaikako bilketa. Gaika bildutako hondakinen ehunekoa (kalitateko birziklatzearen adierazlea da) 2008an erregistratu zen % 32ko maximo historikoaren antzeko mailetan dirau, zertxobait jaitsi bada ere.

Kudeaketa. Bai balorizazio materiala (birziklatzea), bai balorizazio energetikoak urte arteko goranzko aldakuntzak izan dituzte, eta azken 3 urteetan maila altuenetan egon dira (% 27,8 eta % 21, hurrenez hurren). Hondakindegian desagerrarazteari dagokionez, azken 3 urteotako balio baxuena erregistratu da (% 49,1). Berrerabiltzeak hobetzeko joera jarraitua agertzen du, nahiz eta testigantza-mailan mantentzen den.

Per capita adierazleak. *Per capita* sorkuntzak beheranzko eboluzioa agertzen du, sorkuntza absolutuaren antzekoa. 2010ean, lehen aldiz geratu zen adierazle hau Europako batezbestekoaren azpitik. Hondakin birziklatuen eta hondakin desagerrarazien *per capita* datuen urte arteko eboluzioak beheranzko joera agertzen du; birziklatzearen kasuan, balorazio negatiboa egiten da eta, desagerraraztearen kasuan, berriz, balorazio positiboa. Datu horiek berak Europako batezbestekoarekin konparatzen badira, ikus daiteke EAEn Europan baino gehiago birziklatzen dela, baina hondakindegian ere gehiago desagerrarazten dela.


Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Presio-adierazleak (sortutako eta desagerrarazitako kantitateak) eta erantzun-adierazleak (berrerabilitako eta balorizatutako kantitateak)
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2003/01/01 edo 2008, kasuaren arabera
	Datu-seriearen azken eguna: 2010/12/31 edo 2011, kasuaren arabera
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistikotako mota</i>	Guk geuk egindako adierazleak, estatistika ofizialeko eragiketen bidez lortutako datuetan oinarrituta (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jasoa)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net


2.7.2 Hondakin arriskutsuen sorkuntza, kudeaketa eta intentsitatea

<i>Zer dira hondakin arriskutsuak?</i>	Hondakin arriskutsuen definizioa arauetan zehaztuta dago. Hondakin arriskutsuak Hondakinen Europako Zerrendan hala definitutakoak dira (Europako Batzordearen 2000/532/CE Erabakia), orobat Hondakinei eta Lurzoru poluituei buruzko 22/2011 Legean adierazten diren ezaugarri arriskutsuetakoren bat dutenak (adibidez, toxikoa, korrosiboa, sukoia, leherkorra, oxidagarria, kantzerigenoa eta abar).
<i>Zer dira hondakin arriskutsu historikoak?</i>	Urte jakin batean inbentarioan jasotako hondakin arriskutsu gehienak EAEn finkatutako enpresen industria-jarduerak urtean bertan sortu ditu. Dena den, Inbentarioan hondakin historikoak ere zenbatzen dira, hau da, urte jakin batean kudeatzen direnak baina iraganeko ingurumen-pasiboak saneatzetik datozenak (batez ere lursail poluituak eta hondar industrialak).
<i>Adierazleak</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Hondakin arriskutsuen sorkuntza • Hondakin arriskutsuen kudeaketa • Hondakin arriskutsuen desparekatzea


Hondakin arriskutsuen sorkuntza (urteko milaka tonatan)



Hondakin arriskutsuen kudeaketa-mota



Hondakin arriskutsuen sorkuntza eta jarduera ekonomikoaren elkarrengandik desperekatzea (2003ko oinarria = 100)



<i>Unitateak</i>	<p>Sorkuntza absolutuko datuak tona / urte-tan adierazten dira.</p> <p>Kudeaketa-ehunekoak pisutan adierazten dira, urtean guztira sortutako hondakinen guztizko pisuarekiko.</p> <p>Desparekatzea ebaluatzeko indizeak adierazitako erreferentzia-urte batekiko adierazten dira (2003koa=100). Indize hau kalkulatzeko hartzen den sorkuntza-datuak ez ditu jasotzen hondakin historikoak, baizik eta industria-jarduerak urtean bertan sortutakoak.</p>
<i>Iturria</i>	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

Sorkuntza. Oro har, EAEn hondakin arriskutsuen sorkuntzak beheranzko joera jarraitua agertu du azken urteetan. Elkarrekin erlazionatuta dauden bi faktore berebizikoak izan dira emaitza horretarako: 2005az geroztik kudeatutako lurzoru poluituen kantitatea jaitea; eta 2007tik aurrera izan den ekonomia- eta kontsumo-krisia.

Kudeaketa-ahalmena. EAEn sortutako hondakin arriskutsu gehienak (% 63) EAEn bertan kudeatzen dira.

Kudeaketa-mota. EAEn sortutako hondakin arriskutsu gehienak (% 61) birziklatu egiten dira. Adierazle horretan eragin handia du, halaber, hondakin historikoen kantitateak. Izan ere, orain arte, hondakin mota horiei aplikatutako tratamenduak desagerraraztekoak izan dira.

Desparekatzea (intentsitatea). 2003az geroztik, hondakin arriskutsuen ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa (Industriako Balio Erantsi Gordin gisa neurtuta) desparekatzeko joera orokor argia hautematen da. Hau da, EAeko industria-sektoreak sortzen duen balio erantsiko euro bakoitzeko, gero eta hondakin arriskutsu gutxiago sortzen dira.

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Presio-adierazleak (sortutako eta desagerrarazitako kantitateak) eta erantzun-adierazleak (balorizatutako kantitateak)
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2004/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2010/12/31
	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Guk geuk egindako adierazleak, estatistika ofizialeko eragiketen bidez lortutako datuetan oinarrituta (EAeko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jaso)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net

2.7.3 Hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza, kudeaketa eta intentsitatea


Zer dira hondakin ez-arriskutsuak?

Hondakinen Europako Zerrendan halakotzat definitzen diren hondakinak dira (Europako Batzordearen 2000/532/CE Erabakia). Batez ere industria-jarduerako fabrikazio-, transformazio-, erabilera-, kontsumo-, garbiketa- edo mantentze-prozesuetan sortzen dira.


Adierazleak

- Hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza
- Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa
- Hondakin ez-arriskutsuen desparekatzea


Hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza (urteko milaka tonatan)



Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa-mota



Hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza eta jarduera ekonomikoaren elkarrengandik desparekatzea (2003 oinarria = 100)



Unitateak

Sorkuntza absolutuko datuak tona / urte-tan adierazten dira.

Kudeaketa-ehunekoak pisutan adierazten dira, urtean guztira sortutako hondakinen pisu totalarekiko.

Desparekatzea ebaluatzeko indizeak adierazitako erreferentzia-urtearekiko indize gisa adierazten dira (2003koa=100).

Iturria

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Funtsezko mezuak

Sorkuntza. Kapitulu honetan aztertu ditugun gainerako hondakin-fluxuak bezalaxe, EAEko hondakin ez-arriskutsuen sorkuntzak ere beheranzko joera jarraitua izan du azken urteotan, neurri batean, ekonomia- eta kontsumo-krisia dela eta. Nabarmentzekoa da hiru industria-sektoretako hondakinak direla neurri handi batean hondakin ez-arriskutsuen guztizko sorkuntzaren arduradunak. Zehazki, tratamendu termikoetako hondakinak (batez ere altzairuaren sektorea) totalaren % 46 dira; egur-sektoreko hondakinak totalaren % 20 eta hondakin-tratamenduaren sektorekoak, berriz, totalaren % 20. Batera hartuta, hiru korrante horiek sorkuntza osoaren % 86 hartzen dute.

Kudeaketa-mota. Birziklatzeak kudeaketa modu lehenetsia izaten jarraitzen du, eta 2006-2008 urte bitartean % 67-% 68ko balio maximoak erregistratu ziren. 2012an, birziklatzea kudeaketa osoaren % 52 da.

Desparekatzea (intentsitatea). 2003az geroztik, hondakin ez-arriskutsuen ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa (Industriako Balio Erantsi Gordin gisa neurtuta) desparekatzeko joera orokor argia hautematen da. Hau da, EAEko industria-sektoreak sortzen duen balio erantsiko euro bakoitzeko, gero eta hondakin ez-arriskutsu gutxiago sortzen dira.

Informazio gehiago

<i>Mota (DPSIR)</i>	Presio-adierazleak (sortutako eta desagerrarazitako kantitateak) eta erantzun-adierazleak (balorizatutako kantitateak)
<i>Adierazlearen xehetasun teknikoak</i>	Estaldura geografikoa: EAE osoa
	Datu-seriearen lehen eguna: 2005/01/01
	Datu-seriearen azken eguna: 2011/12/31
<i>Informazio estatistiko mota</i>	Eguneratze-maiztasuna: Urterokoa
	Guk geuk egindako adierazleak, estatistika ofizialeko eragiketen bidez lortutako datuetan oinarrituta (EAEko Estatistika Planean edo Urteko Estatistika Programan jaso)
<i>Gehiago jakiteko</i>	Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Adierazleen webgunea, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren webgunean argitaratzen dena: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net



1. ERANSKINA: HERRITARREN PERTZEPZIOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoko Kabineteak 2013ko maiatzean Ingurumenari eta Energiari buruzko ikerketa monografiko bat argitaratu zuen (Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariatzako Idazkaritzaren webgunean dago eskuragarri, «Kabinetea eta Azterketa Soziologikoak» atalean http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_13tef3_medioambiente/es_13tef3/adjuntos/13tef3.pdf).

Azterketa horrek EAEko herritarrek ingurumenarekiko duten pertzepzioaren emaitza nagusiak aurkezten ditu: informazio-maila, esleitzen dioten garrantzia, portaerak eta eguneroko bizitzako ohiturak. Jarraian 2013ko maiatzean EAEko populazio-lagin esanguratsu batekin eta galdetegi egituratu eta itxi baten bidez egin zen inkesta horretako gako eta zifra esanguratsu batzuk aurkeztuko ditugu.

Galderak direla-eta kointzidentzia edo osagarritasuna dagoen kasuetan, Europako Batzordeak azken Eurobarometroan (2011ko ekainean argitaratua) Europako herritarrek ingurumena dela eta duten jarrerari buruzko datuak ere eskaintzen dira (http://ec.europa.eu/environment/pdf/EB_summary_EB752.pdf):

- EAEko herritarren % 60k jotzen du nahikoa informazio edo informazio asko duela ingurumenari loturiko arazoei buruz. Ehuneko hori bat dator EB-27an gai berari loturik adierazitakoarekin.
- EAEko herritarren % 72k jotzen du ingurumena babestea eta poluzioari aurka egitea ezinbesteko eta premiazko arazoa dela, hots, ehunekoak zertxobait jaitsi da 2004tik hona (% 79). % 25ek uste du etorkizunera begirako arazo bat dela, 2004an horrela pentsatzen zuen populazio ehunekoak (% 16) baino askoz gehiagok.
- Herritarren % 62k adierazten du ingurumena zaintzea oso garrantzitsua dela, eta % 37k, nahikoa garrantzitsua dela. Garrantzitsuentzat jotzen den ingurumen-arazoa airearen poluzioa da (% 38); ondoren, klima-aldaketa (% 11), poluzio orokorra (% 9), uraren poluzioa (% 8) eta etxeko hondakinen trataera (% 7) datoz. Biodibertsitateari loturiko ingurumen-arazoak azken tokian daude garrantzitsu hautemandako arazoen artean: % 1 deforestazioa, % 1 landare- eta animalia-espezieak desagertzea, % 1 baso-suteak.

Oro har, datuak EB-27an hautematen den pertzepzioaren antzekoak dira, non % 58k oso garrantzitsu baiteritzo ingurumena babesteari eta % 37k, nahikoa garrantzitsu. Dena den, badira zenbait desberdintasun EAEn eta EB-27ren artean garrantzi gehienekotzat jotako ingurumen-arazoei dagokienez: Europan, garrantzi gehienekotzat hautemandako ingurumen-arazoa gizakiak eragindako katastrofeak dira (petrolio-isuriak, industria-istripuak eta abar), % 42rekin; ondoren, uraren poluzioa (% 41), airearen poluzioa (% 36), produktu kimikoek osasunean duten eragina eta klima-aldaketa (% 34 bi kasuetan), eta hondakin-sorkuntza eta baliabide naturalak agortzea (% 33 bi kasuetan). Hain garrantzitsutzat jo ez diren ingurumen-arazoak poluzio akustikoa eta garraiobideen inpaktua dira.

- EAEko gizartearen % 18k uste du EAEn gutxi egiten dela ingurumena babesteko. % 79k uste du ingurumena babestea beharrezkoa dela, nahiz eta horrek kostu ekonomikoa eragin. Ildo horretan, % 57k uste du ingurumena babesteko politikak sustatu behar direla, uneko testuinguru ekonomikoan ere.

EB-27an iritzi hori are orokortuago dago: Europako herritarren % 89k uste du Europar Batasunak funts gehiago eman beharko lituzkeela ingurumen-politika eta -jarduerak garatzeko eta bultzatzeko.

-
- EAEko gizartearen zati handienak dio ohiz izaten duela ingurumena errespetatzen duen portaeraren bat: % 78k mugikortasun jasangarriari loturiko portaerak; % 75ek garbiguneak edo etxetresnak edo gailu elektrikoak biltzeko udal-zerbitzuak erabiltzeari dagokionez; % 64 ur-kontsumoa mugatzen saiatzen da; % 48 berokuntzaren eta aire girotuaren erabilera mugatzen saiatzen da; soilik % 4k hartzen du ohiz parte ingurumenaren aldeko ekintzetan (hondartzak edo parkeak garbitzea, zuhaitzak landatzea, eta abar).

EB osoan ere, gehienek baieztatzen dute ingurumena errespetatzen duten portaerak dituztela ohiz: % 66k hondakin gehienak bereizten dituela dio, ondoren birziklatzeko; % 53 energia-kontsumoa murrizten saiatzen da; % 37k baieztatzen du erabilera bakarreko gaien kontsumoa (plastikozko poltsak, zenbait bilgarri) murrizten saiatzen dela.

- Kontsumo-ohitura jasangarriak ez dira hain ohikoak EAEko herritarren artean: % 42k arrunki erosten ditu produktu birziklatuak; % 31k bilgarri edo etiketatze gutxiko produktuak erosten ditu; eta % 19k produktu ekologikoak erosten ditu.
Horren harira, Europako biztanleen % 48k uste du produktuen uneko etiketatzeak ez duela argi identifikatzen egiazki zein diren adeitsuak ingurumenarekin.
- EAEko herritar gehien-gehienek (% 83) baieztatzen dute etxeko hondakin guztiak edo ia guztiak bereizten dituztela, birziklatzeko. % 13k dio soilik baten bat besterik ez duela bereizten. Biztanleriaren % 3k ez du inolako hondakinik bereizten eta espazio-falta da ez bereizteko ematen den arrazoi nagusia.
- EAEko gizartearen % 78 zenbait ohitura aldatzeko prest legoke, ingurumena gehiago errespetatzeko. EB-27an, asmo hori honela zehazten da: populazioaren % 72 prest legoke ingurumena errespetatzen duten produktuak erosteko gehiago ordaintzeko.

2. ERANSKINA: INGURUMEN-KUDEAKETAREN ADIERAZLEAK

EAEko eragileek beren jardueretan ingurumen-irizpideak kontuan hartzen izandako inplikazioak eta erantzun-mailak ibilbide luzea egin du eta, oro har, behar bezalakoa izan da. Azken urteetan instituzioen, eragile ekonomikoen eta herritarren eskura jarritako ingurumen-tresnak aplikatu izanak erantzunkidetasun-maila adierazten duten kudeaketa-adierazleen eboluzioan du isla.

Jarraian EAEko gizartearen erantzun-adierazle horietako batzuk ageri dira laburbilduta:

Enpresetako ingurumen-kudeaketaren adierazleak

Enpresek ingurumen-ziurtapeneko eskemak ezartzeak EAEko enpresa-ehunaren inplikazio- eta erantzun-maila adierazten du, beren jarduerak sortzen dituen presioak murrizteko eta, horren ondorioz, EAEaren ingurumen-egoera hobetzeko. Hori dela eta, jarraian EAEko enpresa-kopurua ageri da adierazle gisa, unera arte eskuragarri dagoen ingurumen-ziurtapen motako (Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, 2013):

Ziurtapen mota	EAEEn ziurtatutako enpresen kopurua
Europako EMAS erregistroa	59
ISO14001 araua	1.001
Ekoscan Araua	126 (eta, horietatik, 62, Ekoscan Plus badute)
Ekodiseinu Arauak	90

Ingurumen-ziurtapen estandarizatu eta onarturen bat duten EAEko erakundeen zifrak gora egiten jarraitu du azken urteotan. EMAS ziurtapenen kasuan, berriz, oraindik 2011-2014 Ingurumenaren III. Esparru Programak ezarritako helburutik urrun gaude, hots, EMAS ziurtapenen kopurua 100 erakunde berritara iristeko helburutik.

EAEko administrazioetako ingurumen-kudeaketako adierazleak

EAEko administrazioek ingurumen-kudeaketako jardunbideak garatzeak balio erantsia du, ingurumen-portaera hobetzeaz haratago doana: ingurumen-eredugarritasunaren kontzeptua garatzen da, Administrazio publikoak gizarteko eragileek ingurumen-jardunbide egokiak abian jar ditzaten estimulatzeke duen gaitasun (hartara, haien portaeran eraginez) gisa ulertuta.

Ildo horretan, jarraian EAEko administrazioaren ingurumen-kudeaketako adierazleak aurkezten dira:

- Ingurumen-ziurtapenen kopurua, ohiko ingurumen-ziurtapen eskemen arabera (EMAS erregistroa, ISO14001 araua, Ekoscan araua).
- Erosketa eta kontratazio publiko berdearen ezarpen-maila: erosketa eta kontratazio publiko berdearen ehunekoak guztira eta Eusko Jaurlaritzaren Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2011-2014 Programan lehenetsitako produktu/zerbitzuka (prozedura-kopurua eta bolumen ekonomikoa).
- Tokiko Agenda 21 duten EAEko udalerriak: Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea (Udalsarea 21) da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien Tokiko Agenda 21ak dinamizatzen dituen eta tokiko ekintza planak sustatzen dituen koordinazio- eta lankidetzeta-foroa. Sare horretako kide diren udalerrien kopuruak Udalek jasangarritasun- eta ingurumen-politikak toki-esparruan ezartzeko duten engaiamendu-mailaren berri ematen du.

EAEko administrazioen adierazleak	Datua (Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, 2013)
Europako EMAS erregistroa (kopurua)	12
ISO14001 arauaren ziurtapena (kopurua)	7
Ekoscan arauaren ziurtapena (kopurua)	19
Erosketa publiko berdearen ehunekoa, guztira	% 4, prozedura-kopuruan % 11, bolumen ekonomikoa
Erosketa publiko berdearen ehunekoa, lehenetsitako produktu eta zerbitzuetan	% 27, prozedura-kopuruan % 54, bolumen ekonomikoa
Tokiko Agenda 21 duten EAEko udalerrien kopurua eta ehunekoa	198 udalerrri % 79

Hezkuntzako ingurumen-kudeaketako adierazleak

Ingurumen-hezkuntza ingurumena behar bezala kudeatzea lortzeko oinarri nagusietako bat da. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak hamabost urte baino gehiago darama ingurumen-heziketako politika gauzatzen, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemako Ingurumen Heziketako Programa espezifiko baten bidez. Hori urtero jartzen da abian hainbat garapen-ildoren bidez (ikerketa eta esperimentazioa, irakasleen prestakuntza, sentsibilizazioa).

Urtero abian jartzen diren jardueretatik, hauek aukeratu dira, EAEko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-esparruan ingurumen-kudeaketako jardueren adierazgarri gisa:

- Tokiko Agenda 21 abian jartzea EAEn (ikastetxe eta ikasle kopurua): Eskolako Agenda 21 heziketa-programa bat da eta ingurumen-arazoak ebazteko jakintza, ahalmena, jarrera, motibazioa eta konpromisoak garatzea da haren helburua.
- «Eskola Jasangarria» aintzatespenen kopurua: Eusko Jaurlaritzak urtero ematen du aintzatespen hori. Horren bidez saritzen da zentroan Eskolako Agenda 21 gutxienez bost urtez garatu ostean, ikastegiek erakustea programak ezartzen dituen jasangarritasun-printzipioen arabera jarduten dutela egunero.
- Ingurumen-sentsibilizazioko EAEko ekipamenduen jardura (parte-hartzaileen kopurua, Eskola-programaren bidez eta guztizko bisitari kopurua). Madariaga Dorretxera, Ingurugiro Etxera, Peñas Negras zentrorra eta Txingudiko Ekoetxera egindako bisitak.

EAEko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-esparruaren ingurumen-adierazleak	Datua (Iturria: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, 2013)
Eskolako Agenda 21 martxan jartzea EAEn 2012-2013 ikasturtean parte hartu duten ikastegi eta ikasleen kopurua	466 ikastetxe 216.324 ikasle
«Eskola Jasangarria» aintzatespena duten ikastegien kopurua	81
Ingurumen-sentsibilizazioko ekipamenduetako bisitari-kopurua (Madariaga Dorretxea, Ingurugiro Etxea, Peñas Negras zentroa, Txingudi Ekoetxea), 2012ko Eskola Programaren bidez	26.426
Ingurumen-sentsibilizazioko ekipamenduetako bisitari kopurua (Madariaga Dorretxea, Ingurugiro Etxea, Peñas Negras zentroa, Txingudi Ekoetxea) 2012an	102.874



3. ERANSKINA: EAE-EUROPA KONPARAZIOAREN LABURPENA

2013ko Ingurumen Profilean zehar, EAEko eta Europako datu eskuragarriak konparatu dira, beren definizio eta ezaugarriak zirela-eta hori posible zen adierazleerako. Jarraian, informazio horren konparazio-laburpen bat egiten da.



Klima-aldaketa	Berotegi Efectuko Gasen isurpen totalaren eboluzio-indizea. Unitateak: erreferentzia urtearekiko indizea (erreferentzia urtekoa=100). 2012. urtea:	99	82
	Berotegi Efectuko Gasen isurpen-ratioa, Erosteke Ahalmenaren Parekotasuneko BPGd-arekiko. Unitateak: CO ₂ tona baliokide / milioi euro 2011. urtea	290,7	359,2
Airea	Airearen partikula-poluzioaren eraginpean dagoen hiri-populazioaren indizea. Unitateak: µg/m ³ . EAE urtea 2011. EB urtea 2010:	22	27
	Airearen ozono-poluzioaren eraginpean dagoen hiri-populazioaren indizea.. Unitateak: µg/m ³ /egun. EAE urtea 2011. EB urtea 2010:	2.281	3.706
Ura	Bainatzeko uraren kalitatea. Unitateak: %, kalifikazio-tarteka (ona, onargarria, txarra). 2011. urtea:	% 85 ona % 15 onargarria	% 80 ona % 13 onargarria
Biodibertsitatea	Natura 2000 Sarearen azaleraren ehunekoak. Urtea EAE: 2013. Urtea EB:2010	% 20,3	% 17,5
Materialak	Materialen Bertako Kontsumoa. Unitateak: erreferentzia urtearekiko indizea (2005ekoa=100). 2011. urtea:	58,21	92,85
	Produktibitate materiala. Unitateak: euro/kg. 2011. urtea:	2,87	1,60
Hondakinak	Hiri-hondakinen sorkuntza-ratioa. Unitateak: kg / pertsona / urte. 2010. urtea:	493	502
	Hiri-hondakinen birziklatze-ratioa. Unitateak: kg / pertsona / urte. 2010. urtea:	145	121



Hiri-hondakinen desagerrarazte-ratioa. Unitateak: kg / pertsona / urte. 2010. urtea:		244	186
Herritarren pertzepzioa	Ingurumena babesteari oso garrantzitsua edo nahiko garrantzitsua deritzoten pertsonek. Unitateak: %. EAE urtea 2013. EB urtea 2011:	% 62, oso garrantzitsua % 37, nahiko garrantzitsua	% 58, oso garrantzitsua % 37, nahiko garrantzitsua
	Ingurumen-politikak sustatu behar direla uste duten pertsonak. Unitateak: %. EAE urtea 2013. EB urtea 2011:	% 57	% 89